

Herririk Herri |3|

Katalanek eta frantziarrek jo dute gehien Durangoko Turismo Bulegora



Berbaz |8|

Aitor Iturriaga: "Kutxek bat egin arren, ez daukate derrigor banku bat sortu beharrik"

Kultura |13|

Disorders-en agurra: irailaren 16an Plateruenean; urriaren 1ean Zaldibarren



Ustaritz Aldekoa-Otalora abadiñarrak Betisen kamisetagaz ekin dio hasi berri den denboraldiari. Miguel A. Parejo



"Oraindino emateko asko dudala erakutsi gura dut"

> Ustaritz Aldekoa-Otalorak Betisen jokatu du urtebetean, Athleticetik utzita

> Futbolari abadiñarrak Sevillatik erantzun die Anbotoren galderei

15

•Berriz

Frankismoaren biktimen omenez, oroigarria inauguratu dute

6

•Otxandio

Euskalwesterna Otxandion ospatu dute asteburuan

4

•Mañaria

ESAItak bultzaturiko mozioagaz bat egin du udalak

4

•Iurreta

Kofradien Eguna ospatu dute domekan Laixiarko zelaian

6



KOART 905

Sukaldeak
Bainugelak
Horma-armairuak



Tel. / Faxe: 94 682 68 79
Eitua industrialdea, 9 - 6 behea • 48240 BERRIZ

HERRIRIK HERRI >

DURANGO

Bisitari kataluniar eta frantziarrak nagusi aurten ere Turismo Bulegoan

Euskal Autonomia Erkidegoari dagokionez, Bizkaitik jaso dituzte kontsulten hiru laurdenak

Aurten, urtariletik irailera bitartean, 4.487 bisita jaso ditu Turismo Bulegoak. Datu horiek iazkoaren antzerakoak dira; 2010ean 110 bisita gehiago jaso zituzten, 4.597 guztira. Iazkoaren antzera mantentzen den beste datu bat bisitarien jatorria da; estatu mailan, aurten ere, Katalu-

Kataluniaren atzetik, Madril, Valentzia eta Andaluziakoak izan dira bisitaririk gehienak

Italia, Alemania eta Erresuma Batutik etorritakoen kopurua iazkoaren antzekoa izan da

niatik jaso dituzte kontsulta gehien, eta nazioarteko datuei erreparatu gero frantziarrak izan dira Turismo Bulegora sarrien hurreratu direnak. Oro har, 2010ean orain urte bi baino %40 bisita gehiago jaso zituen Turismo Bulegoak eta orduko igoera mantendu dute, datuek erakusten dutenez.

Ohikoa den moduan, bisita gehienak herrikoak dira, durangarrak (%34,5); estatutik datozen bisitarien kopurua ere ez dabil kopuru horretatik aparte: %30. Euskal Autonomia Erkidegoko kontsulta kopurua %21,4koa da eta atzeritik jasotakoa %13,7koa.

Estatutik jasotako bisiten datuak desglosatuz gero, aurten ere kopururik handiena kataluniarrak osatzen dute: 381, guztira, bisita kopuru guztiaren %28,2;



Urtariletik irailera arte 4.487 bisita jaso dituzte aurten.

Madrildik 190 lagun etorri dira, Valentziatik 142, Andaluziatik 119 eta Gaztela Leondik 99.

Nazioarteari dagokionez, frantziarren bisita kopuruak gainerako edozein herrialdeetako kopuruen oso gaineratik daude.

Urtariletik abuztu amaierara, Turismo Bulegoak 163 kontsulta jaso ditu Frantziatik (%37,8). Ondoren, Italia (%13,9), Alemania (13,2), Erresuma Batua (%12) eta Ameriketako Estatu Batuak (%9,5) datoz, hurren hurren.

DATUAK *	
Guztira.....	4.487
Durangotik.....	1.551
Estatutik.....	1.349
EAetik.....	964
Nazioartetik.....	616
Estatutik	
Katalunia.....	381
Madril.....	190
Valentzia.....	142
Andaluzia.....	119
Gaztela Leon.....	99
Galizia.....	74
Kanariar Uharteak...	50
Aragoi.....	44
Kantabria.....	39
Asturias.....	38
Atzeritik	
Frantzia.....	163
Italia.....	60
Alemania.....	57
Erresuma Batua.....	52
AEB.....	41
Euskal Herritik	
Bizkaia.....	739
Gipuzkoa.....	127
Araba.....	95
Nafarroa.....	66

* Urtariletik abuztu amaierara arteko datuak

Euskal Autonomia Erkidego-ko datuek erakusten dutenez, Bizkaikoak dira kontsulta kopurua hiru laurdenak (739 bisita, guztira). Ondoren, Gipuzkoa eta Araba datoz, 127 eta 95 bisitarekin. ■ J.Derteano

Sanfaustoetako kartel irabazleak historia, jaia eta artea batzen ditu

Lola Gomez berriztarrak hiribilduko ondare "aberatsa" jai giroagaz uztartu du kartelean



Hamar bat urte daramatza Lola Gomezek Berrizen bizitzen.

Guztira 26 kartel aurkeztu dira lehiaketara, eta horietatik hirulau boto asko eskuratu dituzte; lehia gogorra izan da, herriarrek udaleko webgunean bozkatzeko aukera izan dute-eta. Botorik gehien Belen Gomez berriztarraren kartelak lortu ditu: "Durangok ondare aberatsa du, bai monumentoei, bai eraikinei dagokionez. Horiek jai giroagaz batu gura izan ditut", azaldu du.

Kartelean Andra Mariko portikoa agertu zedin nahi izan du: "Santa Anako arkua askotan agertzen da, eta Andra Mariko portikoa ere jaietako beste toki esan-

Irudiak 'Zezenak dira' ekimeneko une bat islatzen du, Andra Mariko elizpean

guratsu bat dela uste dut. Horregatik gura nuen irudia toki horretan oinarritzea". Irudiak Zezenak dira ekimenaren une bat islatzen du, bigantxa bere zain dauden lagunei begira dagoela.

Goitik behera idatzita dagoen 'Durango' berbako letra bakoitzaren barruan Durangon esanguratsuak diren eraikinetako irudiak sartu ditu: Santa Anako arkua, udaltxeko fresko-pintura, Kurutzia-gako gurutzia eta Mikeldiko idoloa, besteak beste. ■ J.D.

Erraldek bideragarria dela frogatu beharko du kontratua luzatzeko

Alokairuko kontratua luzatzeko, hainbat baldintza jasotzen dituen kontratua jaso du udalarengandik

Durangoko Udalak kontratu berria bidali dio Erralderi, Durangoko azpiegiturretan jarraitu gura badu, bete beharko dituen baldintzak zehaztuz.

Idatziak jasotzen duenez, kontratua irailaren 30era arte dago indarrean. Eskatutako baldintzen artean dago Erraldek Berrizen egiteko asmoa duen hiltegi berriak finantziario bideak badituela frogatzea. Erraldek eskatutakoa frogatuko balu, kontratua 2012ko urtarrilaren 31ra arte luzatuko litzateke.

Horregaz batera, kontratuan jasota dauden baldintzetako beste batek dioenez, Erraldek Berriz-

ko hiltegia egiteko lanak hasiko direla frogatzen duen dokumentazioa entregatu beharko du ahalik eta arinen. Hori egingo balu, kontratua automatikoki luzatu egingo litzateke 2014ko urtarilaren 31ra arte.

Erraldek lehendakari Mikel Ansotegik dioenez, batzarra eskatuko diote Durangoko Udalari datozen egunotan

Erraldek lehendakari Mikel Ansotegik zera adierazi du: "Asteon Erraldek batzordea batu da, eta han eztabaidatu dugu gaia. Ez da erabaki zehatzik hartu baztar horretan. Ezertan hasi aurretik, Durangoko Udalagaz batzarra eskatuko dugu datozen egunotan". ■ J.D.

Kontratuak dioenez, hiltegi berriak finantziarioa frogatu behar du hilea amaitu aurretik

Askotariko ekintzak Mugikortasun Astearen barruan, hilaren 16tik 21era

Mugikortasun iraunkorraren alde egiteagatik saria emango diote Durangoko elkarte bati, lehenengoz

Urtero legez, Durangoko Udalak bat egingo du Europa mailan ospatzen den Mugikortasun Iraunkorraren Asteagaz, eta irailaren 16tik 21era bitartean informazioa, ospakizuna eta aldarrikapena uztartzen dituen egitaraua osatu du.

Nobedade moduan hirian bizikleta zelan gidatu ikasteko ikastaroa antolatu dute

Irailaren 22a Autorik Gabeko Eguna da, eta Zumalakarregi itxita egongo da egun osoan

Iraunkortasunaren alde egin-dako lana aitortzeko asmoz, irailaren 16an, 12:00etan, Durangoko erakunde bat sarituko du udalak. Aurrerantzean urtero sarituko dute elkarte edo erakunde bat, Mugikortasun Astearen barruan.

Irailaren 17an ikastaro bitan parte hartu ahalko da; bata urterokoa da, gidatze eraginkorraren ingurukoa (09:30etik 13:30era) eta bestea nobedadea, bizikleta hirian zelan gidatu ikasteko gakoak emango dituena (11:00etatik 13:00etara). Izena honako e-maillean eman daiteke: agenda21@durango-udala.net. Egun berean, Herri Martxa Bizikletaz ekimena egingo dute; 17:00etan Landako Gunean ipini dute hitzordua, Durango eta Abadiño lotzen dituen ibilbidea osatzeko.



Herri Martxa Bizikletaz ekimenean, gazte zein heldu, durangar askok parte hartzen du.

Irailaren 20an berriro eskainiko dute gidatze eraginkorraren inguruko ikastaroan parte hartzeko aukera. Hilaren 21ean, 19:00etan *Carsharing, autoa ulertzeko modu berri bat* hitzaldia emango dute Landako Elkartegian; ibilgailuak

elkarbanatzeko sistemari buruz jardungo dute hizlariak.

Azkenik, irailaren 22a Autorik Gabeko Eguna izendatu du udalak. Zumalakarregi kalea itxita egongo da egun osoan. Arratsaldean puzgarriak, kart-ak, balantz-

bike zirkuitua... prestatuko dituzte Ezkurdin, eta egun guztian Iberdrolaren autobus iraunkorra ere egongo da bertan. Eguraldi txarra egiten badu, ekintzak Landako Erakustazokara tokialdatuko dituzte. ■ J.Derteano

IZURTZA

Egun osorako plana jaien bigarren asteburuan ere

Itziarren Semeak, BEK eta Zirkinik Bez, bihar



Jabier Iriondo palistaren omenezko partidako irudia.

Erdoitzako Andra Maria eguna ospatzeko, meza, Mendigain dantza taldearen emanaldia eta Jabier Iriondo palistari egindako omenaldia izan ziren atzo Izurtzan.

Joan zen barikuan abiatu zituzten jaien bigarren asteburuari ekin diote, beraz. Irailaren 10ean, bihar, Disfraz Gaua ospatuko dute: herri afaria egingo dute, 21:00etan, eta Itziarren Semeak, BEK, eta Zirkinik Bez taldeen kontzertuak izango dira 23:00etan.

Irailaren 10ean, Disfraz Gaua ospatuko dute, eta herri afaria egingo dute, 21:00etan hasita

Domekan da jaien azken eguna, eta goizetik, Jaizale taldearen doinuekin ekingo diote egunari. Dantzak, bertso saioa, jubilatuen bazkaria eta mus txapelketa izango dituzte, besteak beste. ■ I.E.

MALLABIA

Haur Hezkuntzako gelak berriztu dituzte udan

Oporraldia baliatu dute ume txikien geletan hainbat konponketa egin ahal izateko

Mallabian Haur Hezkuntzako gelak guztiz berriztu dituzte udan. Ekainaren azken astean ekin zieten lanei, eta astelehenean garbiketa egin dute. "Txikiendako espazio zabalak gura genituen, panel mugikorak jarri ditugu, bi gela banatzen lekua bikoiztuz", azaldu du Mila Mondragon Mallabiko alkateak.

Haur Hezkuntzako gelen artean panel mugikorak jarri dituzte espazioa bikoizteko

Bi urtekoen gelan komunak ikasleentzat egokitu dituzte. Gelako leihoak eta atea aldatzeaz gain, hormak margotu dituzte. Teilatuko kanaloiak ere aldatu dituzte. "Kanaloiak zikinkeriaz eta elurragaz hondatuta zeuden", azaldu dute. Eskaileretan jarrita igotzeko plataforma jartzen dabilta, eta urritik aurrera erabilgarri egotea itxaroten dute.

Lanok 301.000 euroko aurrekontua dute. Hezkuntza Sailak %60 ordaindu du, eta udalak %40. Datorren urterako ere konponketak egiteko diru-laguntza eskatzeko asmoa du udalak. ■ J.G.

e t x e a

i a t

i a t

e t x e a

PLATERUENA

Astelehena **ASTELEHENGORRI** -%10

Asteartea **ARINARIN**

Asteazkena **AHOBETEMUNDU**

Osteguna **GEUREKONTU**

Ostirala **BARIKUNASAI**

Astelehenetik zapatura egunero aukeran:

Menu ekologikoa

Menu begetarianoa

Haurrentzat menu erdia

Eskatu MENU TXARTELA 10. menua OPARI

PLATERUENA KAFE ANTZOKIA Landako etorbidea, 4 A
- 48200 Durango Jateketa: 946030300

OTXANDIO

Western txapelketa jokoan, asteburuan

Aragoi, Katalunia, Madril eta Euskadiko jineterik onenak lehiatuko dira harezko futbol zelaian

Azkeneko urte bietan Zaldibarren jokatu duten Euskal Western Txapelketa Otxandion antolatuko dute aurten. Zapatu eta domeka honetan izango da, harezko futbol zelaian egokituta-ko azpiegiturretan. Euskal Western elkarte eta Euskal Hipika Federazioa dira ekimenaren antolatzaileak, eta ikuskizunerako sarre- ra doakoa izango da.

Euskal Herriko jinetez gainera, estatu mailako onenak batu-ko dira Otxandion, federazioen arteko txapelketa ere jokatu-ko dutelako. Hain zuzen ere, Aragoi, Katalunia, Madril eta Euskadiko 40

Zapatuan goiz eta arratsaldean eta domeka goizean lehiatuko dira zaldizkoak Otxandion

Euskadiko Txapelketaz gainera, federazioen arteko lehia ere izango da; ikuskizunerako sarrera doakoa izango da

zaldizko onenek parte hartuko dute asteburuko euskal western jaialdian.

Zaldizkoek hainbat motatako proben bitartez erakutsi beharko dute zaldi gainean duten trebezia eta abilezia. Zapatuan, 10:00etatik 13:30era, Team Penning modalitatean lehiatuko dira. Taldeko lanean, ganaduaren artetik hiru abelburu sartu beharko dituzte ikuiluan. 16:00etatik 20:00etara, Cattle Penning eta Team Sorting probak jokatuko dituzte: zaldunak abelburu bat ikuilura eroan beharko du, ahalik eta denbora gutxien erabilita.

Domekan finalak

Domekan, 09:00etatik 14:00etara Euskadiko Txapelketako Team Penning modalitateko bigarren txanda eta federazioen arteko lehia erabakiorrak jokatu-ko dituzte. Ondoren, 14:00ak inguruan, sari banaketari ekingo diote, futbol zelaian bertan. ■ J.Derteano



laz Zaldibarren antolatu zuten txapelketa. Kepa Aginako

ABADIÑO

Sabaia konpondu arte, igerilekua berriro itxita

Konponketak amaitu arte, Elorrioko igerilekua erabili ahalko dute Abadiñoko erabiltzaileak

Askatu eta jausi egin den sabaiko estalduran konponketak egin bitartean, itxita dago Astolako igerilekua. Itxieraren berri emateko udalak komunikabideetara bidali duen oharrean jakinarazi duenez, konponketak amaitu bitartean, Elorrioko igerilekua erabili ahal izango dute abonatuak.

Jose Luis Navarro alkatearen arabera, "eraikinaren egiturak zituen arazoaren ondorio" izan da sabaia askatzea: "Orain legealdi bi inauguratu zenetik, hainbat konponketa behar izan ditu".

Lanak ahalik eta arinen amaitzen saiatuko da udala, Navarro alkateak azpimarratu duenez. ■ I.E.



Igerilekuko sabai mugikorra konpontzen dihardute.

Nerabeei zuzenduriko txalaparta ikastaroa

Abadiñoko Udalak 2011-2012 kurtsorako eskaintzen dituen ikastaroetako bat da 12 eta 16 urte bitarteko nerabeei zuzendurikoa. Urritik abendura arte, zapatu goizetan izango dira txalaparta ikastaroaren saioak, eta Udal Mediatekan edo Errota kultur etxean, irailaren 24ra arte, eman dezakete interesdunek izena.

"Txalaparta ikastaroen bitartez, ondare kulturalaren barruko instrumentua jotzen erakutsi gura diegu gaztetxoari", adierazi dute ikastaroa antolatu duten udaleko kultura sailekoek.

Ikasturte honetarako udalaren ikastaro eskaintzak, masajea, yoga, bainika, zeinu-mintzaira, tai-chia eta sukaldaritza jasotzen ditu, besteak beste. ■ I.E.

Udal Mediatekan edo Errota kultur etxean, irailaren 24ra arte eman daiteke izena

MAÑARIA

ESAITek bultzaturiko mozioagaz bat egin du udalak

Txirrindularitza bai! Inposaketa-rikez! Euskal Herria nazioa, lemagaz, udaletxeko balkoian pankarta ipintzea onartu dute, besteak beste, udal gobernuak Bilduk eta EAJk, osoko bilkuran.

"Gure nazio izaeraren ukazioa berresteko dakarte itzulua Euskal Herrira"

ESAIt elkarteak eta Euskal Herriko beste hainbat eragile sozial, sindikal eta politikok sinatzen duten idatziagaz bat egin du udalak, eta "gure nazio izatea ukatzen digutenek, ukazio hori berresteko helburuagaz dakarte frogaren garrantzitsu hori gure herrira", aldarrikatu.

Espainiako Itzulua Urkiolan gora abiatu orduko, irailaren 10ean, arratsaldean, "proba ikus-tera ikurrina eskuan hartuta" joateko gonbita luzatu die udalak, bestalde, mañariarrei. ■ I.E.

ATXONDO

Atzeratu egin dute Anbotope elkarteak lokala uzteko agindua

Durangoko epaitaegiak hala aginduta, irailaren 13a baino lehenago utzi behar zuten lokala Anbotope elkarteak kideek. Epaitaegiak kaleratzea geldiarazi du orain, Anbotopek idatzi bat aurkeztu duelako. Idatzian, udalagaz iraungita dagoen kontratua "elkarreagaz barik pertsona bate-gaz" sinatu zela dio elkarteak.

Arrendamendu kontratua 1986an luzatu zuten azken aldiz Atxondoko Udalak eta Anbotope elkarteak. Ordutik, urtero luzatu dute ahoz, eta udalak etetea erabaki zuen 2008an. Ordutik epaiketetan murgilduta egon dira udala eta elkarteak, eta epai- leak arrazoiak eman dio udalari. Uztailean, irailaren 13ko epea ipini zuen lokala uzteko, baina orain prozesua luzatu egingo da.

Hilaren 13an utzi behar zuten lokala, baina luzatu egingo da 2008an hasitako auzia

BILBAO ASEGURUAK
Jabier Rueda

Grupo CATALANA OCCIDENTE

Jose Antonio Agirre Lehend. 8 • 48200 Durango
Tel.: 94 620 27 10 • Faxa: 94 681 65 77

GAER DESINFEKZIOAK

Mota guztietako intsektuak eta arratoiak hiltzen ditugu:
LABEZOMORROAK, INURRIAK, JANTZISITSAK, ARRATOIAK, ARKAKUSOAK, ERLEAK...

Iturriza, 42 - 2. ezk. - Tf./Faxe: 94 622 57 74 - 48240 BERRIZ Mug: 658 75 72 79

ALBERDI
HARATEGIA HARATEGIA

DURANGO

Bertako okela

Aurretiaz prestatutako janariak

Askatasun etorbidea, 1
Tf: 94 681 76 58
48200 DURANGO

ODOLOSTETAN GAILEN - 2009
Eminencia en la elaboración de Morcillas

Alberdi Harategia

ALBERDI

prekozinatural

Laster Errotaritxuenan bizitzen hasi ahal izango duzu Lanak martxan daude



Erakitzten ari garen proiektuak. Informazio hau aldatu egin daiteke arrazoi tekniko edo komertzialengatik. Apirilaren 21eko 515/89 E.D.ari eskatzen den eta publizitate honen barruan ageri ez den informazioa.

%100 arte finantzatutako
erosketa:

Sabadell Guipuzcoano



Finantziazio baldintza apartak

www.solvía.es

www.sukia.com

sukia
Zure etxean zaude.
Estás en tu casa.

946 46 20 41

BERRIZ

O rlan Isoird alkateak eta Maite Arrizabalaga Berriz 1936 Gogoratzen elkarte-ko kideak domekan burutuko den ekitaldiaren aurkezpenean egin dute asteon. Azken urteetako omen lanaz gainera, elkarteak informazio bilketa sakona egin dute, eta oraindik ere argitzeko asko dagoe-la azaldu du Arrizabalagak.

100 lagun ingururen espediente edo informazioa jaso ahal izan dute

Ikerketak udaletxeko artxiboan, artxibo militarretan eta historialari batzuen ekarpenagaz osatu dituzte

Frankismoaren errepresioa pairatutako kopuru zehatza ez daukate esku artean, baina 100 lagun ingururen espediente edo informazioa jaso ahal izan dute la zehaztu dute. Ikerketak udaletxeko artxiboan, artxibo militarretan eta historialari batzuen ekarpenagaz osatu dituzte. Helburua, "jasotako dokumentazioa herritarren eskura jartzea da", Arrizabalagaren berbetan. Ikerketa hori, senideekin hartu-ema-

na izan arren, kasu batzuetan ez dela erraza izan argitu du: "Fermín Aranguren ezagutu ere ez genuen egiten, eta Gerediagaren bitartez jakin genuen Asturiasko datuetan berriztar bat agertzen zela; mugitzen hasi, eta familia-gaz kontaktua egin genuen". Bere esanetan, "oroigarrian fusilatuen eta kartzelatuen izenak agertzea eskertuko dute senideek; izen horiek herrian, ikusteko moduan, geratuko dira betirako". Arrizabalagak gehitu duenez, "Berrizgune errepublikazalea zen, eta fronterra ere herritar asko joan ziren".

Egitaraua

"1936ko estatu kolpe faxistari aurre egitearren fusilatutako zein kartzelan hildako berriztar guztiak oroitutako eta goretsiko dira domekan", Isoirdek adierazi duenez. Herritarrei ekitaldietara hurreratzeko deia egin die; 11:00etan izango dira oroigarriaren inaugurazioa eta ekitaldi nagusia Oroimenaren Bidean, eta 12:15ean *Debekatuta dago oroitzea* dokumentala eskainiko dute Kultur Etxean. ■ M. Onaindia

Arrizabalaga: "Izen horiek herrian, ikusteko moduan, geratuko dira betirako"

Frankismoaren biktimen izen eta bizipenak oroigarri

Domekan inauguratuko dute oroigarri berria, Oroimenaren Bidean



Isoirdek eta Arrizabalagak udaletxean eskaini zuten prentsurrekoa, martitzenean.

IURRETA

Kofradien urteroko hitzordua Laixiarren

Doroteo Biritxinaga eta Jabier Gerediaga batzordekideak hartuko dituzte gogoan

Urteko kontuak egin eta herri basoen (200 hektarea) egoeraz jarduteko hitzordua dute, domekan, herriko sei kofradiek: San Marko, Fauste, Goiuri, Santa Maña, Orozketa eta Iurreta.

XXXVIII. Laixiar Eguna izango duten honetan, bereziki, azken

200 hektarea batzen dituen basoen berri emango dute XXXVIII. Laixiar Egunean

hileotan hildako Doroteo Biritxinaga eta Jabier Gerediaga batzordeko kideak gogoratuko dituzte. Administrazioan 25 urte bete dituztenak ere omenduko dituzte.

Kofradietako hildakoak gogoratuz egiten den mezagaz hasiko da eguna, 12:00etan. Gero, Batzar Nagusia hasiko da eta bertsolari eta dantzariak arituko dira. Belartzan jarritako mahaietan bazkalduko dute; salda, kafea eta edana kofradiek eskainiko dute. Musika eta umeentzako jolasak ere antolatuko dituzte arratsalderako. ■ A.B.



Belartzan jarritako mahaietan bazkaldu ohi dute.

ZALDIBAR

Bueltan dator Zapatublai, umeentzako zapatuetako olgeta

Gaur hasi eta irailaren 16ra arte eman daiteke izena ekimenean; 30 euro ordaindu eta ordainagiria udaletxean aurkeztu behar dute interesdunek

Urriaren 15ean hasiko da Zapatublai ekimenaren aurtengo ikasturteko edizioa, eta ekainera arte hamabostean behin elkartuko dira izena ematen duten umeak. Horretarako, apuntatzeko, zabalduko dute epea; irailaren 16a da azkeneko eguna. Udaleko kontu korrontean 30 euro sartu behar dituzte gurasoek; ondoren, ordainagiria eroan behar dute udaletxera formularioagaz batera.

Zapatublairen helburu nagusia euskararen erabilera ziurtatzea eta indartzea da, aisialdia horretarako erabiliz. Horregaz batera, "lagun arteko giro jatorrean" hezi, natura errespetatzen ikasi eta

Zapatublairen helburu nagusia euskararen erabilera ziurtatzea eta indartzea da, aisialdia horretarako erabiliz

Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako 1. eta 2. zikloetako ikasleek parte hartu dezakete

ingurunea ezagutu eta ondo pasatzeko asmoak zehaztu dituzte antolatzaileek.

10 hurreko taldeak

Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntzako 1. eta 2. zikloetako ikasleek parte hartu dezakete Zapatublain. Unibertsitate tituludun edo esperientziadun begiraleek eta koordinatzaile batek osatuko dute lan-taldea; umeak 10 laguneko taldeetan banatuko dituzte, adinaren arabera.

Zapatu arratsaldeetan, hamabostean behin, garatuko da ekimena, arratsaldeko 16:00etatik 19:00etara. ■ M.O.

Euskara eskoletan parte hartzeko deialdia

Maila ugari daude aukeran izena emateko, baita praktikatzen Berbalagun egitasmoa ere

Zaldibarko Udalak euskara ikastaroetan apuntatzeko epea zabaldu du. Irailaren 22ra arte iraungo du matrikulazio eskaintzak.

Euskalduntzea, autoikaskuntza, 3. maila/EGA, HABE azterketa ofizialak, C2/4. maila, on-line ikastaroak, guraso taldeak eta

Diru-laguntzak emango ditu udalak ikastaroetarako; iazkoek oraintxe daukate eskatzeko aukera

hizkuntza eskakizunen atalak daude aukeran. Gainera, Berbalagun egitasmoan parte hartzeko aukera ere badago, azaldu dutenez.

Gurasoek astean hiru edo lau egunez ikasiko dute, 14:30etik 16:00etara. Gainerakoek, astelehenetik eguenera izango dituzte saioak, 09:10-11:10, 10:00-12:00 eta 19:00-21:00 ordu tartetan banatuta.

Ikastaro horietarako diru-laguntzak emango ditu udalak, kurtso amaieran. Hain zuzen ere, iazko ikasleek oraintxe daukate eskatzeko aukera, urriaren 14ra bitartean. ■ M.O.

Durungaldean labor

Erretzeari uzteko ikastaroan izena emateko epea hasi da

Amankomunazgoko Drogomenpekotasun Prebentzio Zerbitzuak jakinarazi duenez, irailaren amaieran tabakoa erretzeari uzteko ikastaroa hasiko du, eta dagoeneko eman daiteke izena (94 620 05 20). Bestetik, programa berriak eskainiko dituzte: *Emozioak lantzen* izenekoan (10-14 urteko artekoizuzendua) ikasleek euren emozioak izendatzen eta eguneroko bizitza hobeto antolatzen ikasiko dute.

Genero indarkeriaren aurkako kontzentrazioa

Andereak plataformak (indarkeria matxistaren aurkako elkarteak) berriro ekin die genero indarkeriaren kontrako kontzentrazioak egiteari, eguen arratsaldero. Lan urteagaz batera, irailaren 15ean, Andra Mariko elizpean batuko dira, arratsaldeko 20:00etan. Iraileko hurrengo hitzorduak irailaren 22an eta 29an izango dira.

Sormena sustatuz hasi dira Maristetan

Kartulina bat, egurrezko makilatxoak eta itsasgarria. Material horiekin eta sormena baliatuz, ahalik eta zubirik luzeena eta altuena egin behar izan dute Maristetako ikasleek, kurtso hasierako ekintza moduan. Sormena, berrikuntza, ilusioa eta talde lana sustatu dituzte ekintza horregaz.



ELORRIO



Txupinazo koloretsu eta jendetsuan Elorrioko futbol taldeko neskek eman zioten hasiera jaiari, joan zen barikuan.

Sukalki Eguna bihar, jai giroko saltsak jarraipena izan dezan

Balantzea egitean, jaiak “ondo” doazela adierazi du Ana Otadui alkateak

Asteburu honetako azken trakagazamaituko dira aurtengo Ferixa Nausikoak. Lepoan egun askoko parranda eta nekea eroan arren, oraindik ere festarako prest izango dira elorriarrak. Bihar Sukalki Eguna ospatuko dute Aldatzekuan. Goiz-goize-

Bihar erromeriak girotuko du bazkalostea, eta 18:30ean karroza jaitsiera ere egingo dute txaranga eta guzti

tik izena emateko eta erreserba egiteko deia egin dute, eta eguerdirako mahai gainera aterako dituzte kazolak. Erromeriak girotuko du bazkalostea, Bentazarreko mutilekin. Gero, karroza jaitsiera egingo dute, txaranga eta guzti, arratsaldeko 18:30ean.

Domekan ere ez da ekitaldi esanguratsurik faltako. Kainaberrak eratutako elkartasun jaialdiak plaza hartuko du goizean, eta herri-kiroletan aizkolari zein harri-jasotzaileak lehiatuko dira, 13:00etan. Arratsaldeko 17:00etan umeen danborradaren txanda izango da, 18:30ean bertso saioari paso emateko. Astelehenean, 22:00etan, idi-probetako azken saioak emango dio amaiera irailaren 2an hasitako egitarauari. Ana Otadui lehene egunen “balantze positiboa” egin eta “parte-hartze oso altua izan dela” azpimarratu du. ■ M. Onaindia.

GARAI

Gimnasia ikastaroa hasiko dute urrian

Garaiko Udalak gimnasia ikastaroa antolatu du aurtengo urrian, eta, adierazi dutenez, urrian hasiko da ziklo berria. Bertan parte hartu ahal izateko izena emateko epea hasita dago jadanik, eta irailaren 21a izango da azkeneko eguna. Udaletxera jo beharko du apuntatu gura duenak. Adin guztietako herritarrek eman dezakete izena ikastaroan. Inskripzio epea amaitzen denean, interesa daukaten guztiekin batzarra egingo duela adierazi du udalak, ikastaroaren ordutegia den artean adosteko.

Irailaren 21a izango da ikastaroan izena emateko azkeneko eguna

Izen-ematea amaitzen denean, interesa daukaten guztiekin batzartuko dira

Ekainera arteko programa izango du ikastaroak, eta frontoian edo kultur etxean garatuko da, eguraldiaren arabera, azaldu dugutenez. ■ M.O.

izen ematea

IRAILAREN 12TIK 16RA

Pinondo Etxea
Pinondo plaza, 1 behea
DURANGO

Tel.: 94 603 00 30
informazioa@durango-udala.net

Plazak zozketa bidez banatuko dira (sartzeko beste moduren bat adierazten den ikastaroetan izan ezik), eta durangarrek izango dute lehentasuna. Ikastaro batean bakarrik lortu ahal izango da plaza. Edozelan ere, zozketa ostean plaza libreak geratuko balira, aukera izango da eskatutako beste ikastaro batean parte hartzeko.

Zozketa eguna: Irailaren 20an, goizeko 11:00etan Pinondo Etxean.

Izen ematearen kuota: Durangon erroldatuek 6 euro ordaindu beharko dute ikastaro bakoitzeko, eta erroldatuta ez daudenek 12 euro. Ordaindu beharrekoa **BBKko** 9105610860 kontu-zenbakian ordaindu eta ordainagiria Pinondo Etxera eraman (azken eguna, irailaren 29a).

www.durango-udala.net

Ikastaroak • Tailerrak


2011-2012

TAILERRAK	EGUNAK	KODIGOA	ORDUTEGIA	HASIERA	HILEKO PREZIOA	TOKIA	ADINA					
MARRAZKIGINTZA	Astelehena eta asteazkena	41001	17:00-19:00	Irailak 28	26€ + matrikula 26€	Ezkurdi Aretoa	15 urtetik aurrera					
		41002	19:00-21:00									
MARGOGINTZA	Asteartea eta osteguna	41003	15:00-17:00	Irailak 29								
		41004	17:00-19:00									
		41005	19:00-21:00									
ZERAMIKA	Asteartea eta osteguna	41006	17:20-19:20	Irailak 27	36€ + matrikula 36€	Pinondo Etxea	8 urtetik aurrera					
		41007	19:20-21:20									
ENKAJEA	Astelehena	41008	15:00-18:00	Urriak 17	15€							
		41009	18:00-20:30									
BOLILLOAK	Ostirala	41010	15:30-18:00	Urriak 7	17€		12 urtetik aurrera					
		41011	18:00-20:30									
TRIKITIXA	Asteartea eta asteazkena	41012	17:00-21:00	Irailak 27	33€	Landako: entsegu lokalak	6 urtetik aurrera					
ALBOKA	Asteazkena	41013	16:00-22:00	Irailak 28	45€							
GITARRA	Larunbata	41014	10:00-11:00	Urriak 1	26€							
		41015	11:00-12:00									
		41016	12:00-13:00									
PANDEROA	Astelehena eta asteazkena	41017	17:00-20:00	Irailak 27								
		41018	17:00-20:00									

BERBAZ>

“Kutxak banku bihurtzeak gure garapen sozioekonomikoa gogor kaltetuko luke”

Kutxa Bank bankua sortzeko bozketak egin behar dituzte laster kutxetan; BBKn, datorren barikuan egingo dute



Aitor Iturriaga •

■ Durangarra

■ BBK-ko Kontseilu Nagusiko ordezkaria Durangaldeko Ezker Abertzaleetik

“EAJk banku bat sortu gura du, eta prozesua azkartzen dabil”

honetan, Caja Navarra bera ordezkatzeko duen Banca Cívica-ren % 15 bakarrik da Caja Navarrarena. Hemen antzeko zerbait gertatu daitekeela uste dugu. Gainera, informazio gutxi dabilta ematen, eta prozesua interesatuki azkartu dute.

Zergatik azkartu da prozesua?

Fusioa egiteko hiru kutxek baietz esan behar dute. BBK eta Vital Kutxa EAJk kontrolatzen ditu, eta Kutxak dauka giltza. Martxoan Kontseilu Nagusia aldatu behar dute Kutxan, eta Bilduk edukiko du gehiengo. Orain 100 kontseilarietatik 13 ditu Hamaika Bat alderdiak, desagertu den arren. Dena azkar eta isilpean dabilta egiten; EAJk banku bat sortu gura du, bere kontrolpean edukitzeko. Aukera bakarra bankarizazioa dela diote, baina kutxen bategiteatik ez dago zertan banku bat sortu; Ezker Abertzaleko kontseilariak fusioaren alde gauden, baina kutxen formulagaz.

LABeko kide ere bazara. Zelan ikusten duzu kutxetako langileen etorkizuna?

Prozesuan lanpostuak galduko direla argi dago; 1.000 postu inguru desagertuko dira. Oso kuriozoso da bankuek gure bizitza laborala luzatzea gomendatzen duten bitartean, ehunka pertsona 50 eta 52 urtegar aurrejubilatzea, denon diruagaz. Fusioaren kontuan, gainera, nabarmendu behar da negoziazio esparruan UGT eta CCOOgaz jardun dutela, Euskal Herriko gehiengo sindikala kontutan hartu barik. ■ A.Ugalde

Datorren barikuan BBK-ko Kontseilu Nagusiak Kutxa Bank sortzearen inguruko bozketa egingo du. EAE-ko hiru aurrezki kutxen fusioa bankarizazioagaz egingo litzateke, hiru asanbladetan baiezkoak irtengo balu. BBK-ko bozketan egongo da kontseilu horretako kide den Aitor Iturriaga.

BBK-ko Kontseilu Nagusiko kide zara. Zelan dago osatuta organu hori?

100 kide dauzka. 50 Aldundiko eta udal handietako ordezkariak dira; zazpi langile batzordeko kideak dira, eta beste 43ak bezeroen artean aukeratzen dira. Bezeroen artean, Durangaldeko ordezkariak hiru dira, eta horietako bat naiz ni.

Zer desberdintasun dago aurrezki kutxen eta bankuen artean?

Kutxetan ez dira irabaziak jabeen artean banatzen; zati handi bat gizarte ekintzara bideratu eta bestea kutxan geratzen da, berau kapitalizatuz. Bankuek, oster, akzio-

dunak dituzte, eta helburu bakarra dibidenduak banatzea da beti; dirua irabaztea.

Banco de Españak kutxak banku bihurtzea errazten duen legea sortu du.

Legea duela urte bi sortu zuten, arazoak zeuzkaten aurrezki kutxei laguntzeko. Formula hibrido bat planteatzen dute: Banku bihurtuz gero, jabetzaren zati bat burtsara joango litzateke eta kanpoko inbertsoreen diruagaz hobetuko litzateke aurrezki kutxen egoera ekonomikoa. Sakonean, baina, kutxein bukatu nahi dute.

EAEko kutxen egoera txarra da?

Ez. Hemengo kutxen ratio guztiak Espainiakoenak baino gorago daude. Lege hori txarto zeuden kutxei begira egin zuten, eta hemen beste inon baino zentzu gutxiago dauka bankarizazioak. Azkenaldian zera zabaldu dute; kutxena

eredu zaharkitua dela, garapenak banku bihurtzera eramaten gaituela... Baina hori gezurra da. Alemanian eta Frantzia, esaterako, aurrezki kutxek eta kreditu kooperatibek kredituen erdiak baino gehiago ematen dituzte.

Banku bihurtzeak zertan aldatuko luke oraingo egoera?

Orain arte irabaziekin bultzatu den gizarte ekintza arriskuan legoke. Kanpoko akzio-dunak sartzen badira, euren helburua dibidenduak jasotzea baino ez da izango. Iaz BBK-k gizarte ekintzarako 80 milioi euro izan zituen. Gizarte ekintza horri esker mantentzen dira nagusien egoitza ugari, ezinduei zerbitzuak ematen dizkieten elkarteak, ekimen kulturalak... Laguntza horrek behera egingo du nabarmen; kanpoko inbertsoreak, banku handiak eta especulatuzaileak sartzen badira, dibidenduak gurako dituzte

“Kutxek bat egin arren, ez daukate zertan banku bat sortu”

eta diru hori obra sozialetik irtengo da. Lapurreta latza izango da; denon dirua esku pribatuei oparitzea.

Zelan eragingo lioke jarduera ekonomikoa?

Kutxek konpromisoa daukate euren lurraldearekiko. Hemen, enpresa txiki eta ertainen finantziarioa, batik bat, kutxek bultzatu dute. Uste dugu osatuko den banku berria, Kutxa Bank, beste edozein banku legez, etekin gehien emango dion lekura begira egongo dela, bertoko industria eta garapen sozioekonomikoa muzin egingez.

Banku bihurtu diren kutxak zelako egoeran daude?

Caja Navarra, adibidez, Banca Cívica sartu da hiru kutxagaz, eta burtsan sartu denetik lehen zeukan balorearen erdia galdu du. Gainera, kutxako goi-karguen soldatak % 46 igo dira. Momentu

“Kutxa Banken kanpoko inbertsoreak sartuz gero dibidenduak gurako dituzte, eta diru hori gizarte ekintzatik irtengo da”

DANTZALDI IBILTARIA 2011~12

Erandio, Sopela,
Gernika, Galdakao,
Durango, Zarautz,
Zaratamo, etab.

OINARRIZKO DANTZA IKASTAROA

- Erromerietako dantzak ulertu eta ikasteko.
- Hasieratik, lehen urratsetatik.
- Jota, Porrúa, Jauziak, Balsa, Pasodoblea, Txotisa, Mazurka, Polka...

DANTZAGUNEA

- Oinarrizko ikastaroa egin dutenentzako, dantzari ohientzat eta oinarrizko dantzaren ezagupena dutenentzat.
- Astero dantzan, dantzazaleen artean eta giro atseginean praktikatzeko tokia.
- Aiko taldeko dantza maisuen gidaritzapean dantzakera, ulermena eta erreperitorioa aberasteko aukera.

Durangon astearteetan Plateruena Kafe Antzokian

AURKEZPEN ERROMERIA

Plateruena Kafe Antzokian
Irailaren 17an, larunbata
19:00etan

OINARRIZKO DANTZA IKASTAROA:

18:30etik 20:00etara

DANTZAGUNEA:

20:00etatik 21:30era

90 minutu astero urritik ekainera
izen ematea **120 euro**

www.aikotaldea.com • tel. 646 336 147



IRITZIA >

gutunak@anboto.org

Gutunak @

Eman buelta Vueltari

Igande bazkalosteak etxeko saloian Televisión Españolako filmak ikusten igarotzen genituen garaiak aspalditxo pasa ziren. Geroago ikasi dugu John Waine, igande arratsok bete zizkigun cowboy eta film gehientsuenen protagonista, faxista hutsa zela. Edo Custer koronela Wounded Kneen ez zela hain zuzen heroi baten gisa hil, bai-zik eta indiarren masakratzaile malapartatu bezala. Indiarrek ere pelikuletako gaizto izatetik, kide eta gure zinezko heroi izatera pasa dira, zanpatuen arteko enpatiaz-edo. Bazkaloste horietan produkzio espainolak ere ez ziren falta izan, tartean, *Bienvenido Mr. Marshall*.

Zuri-beltzez ikusi genuen filmak España aldeko herri txiki baten gorabeherak azaltzen ditu: zurrumurrua zabaldu da bertara, bisitan, Estatu Batuetako senatari bat iritsiko dela; itxuraz, oparotasuna eta ongizatea ekarriko dituen bisita. Halako etorrera prestigiotsuari fundamentuzko harrera egiteko prestatuko da herri osoa, ongi-etorriaren enblema kale nagusiko balkoian eskegitako afixa: "Welcome Mr. Marshall". Hamaika intzidentziaren ondoren, pankartapetik ziztu bizian igaroko den senatari amerikarrak ez du abiada horren haizea besterik utziko, bere zain, itxaropenez lepo dagoen herriko kaleetan.

Asteburu honetan, baina, bazkalosteko filma bigarren plano batean utziko duen beste bisitari prestigiotsu bat izango dugu gurean. Senatari amerikarren antzera ziztu bizian igaroko da herriko kaleetatik, eta, oraindik zalantzarik balego, Españako mapan behar den bezala kokatuko gaitu; "como Dios (y la Constitución) manda!". Normala baita, normaltasun osoz dozenaka urteren ondoren, 'Vuelta a España' Euskal Herriko eta Durangoko kaleetatik igarotzea, normal-normala. Dena are normalagoa izan dadin, 'Vuelta a España'-k zapalduko dituen kaleak banderatzu hori-gorritz apaindu beharko lituzke udalak.

Guri normalitate hau oso anormala suertatzen zaigu. Kirola maitate dugu, baina inposizioak amorratzen gaitu. Ez dezala inork kirola eta politika nahastu beharrik ez dagoela esan. Selektzio nazionalak, liga nazionalak, lasterketa nazionalak, kolore nazionalak ezer indartzekotan hegemonia nazionala indartzen dutela ongi baitakigu; kasu honetan, bat eta bakarra omen den nazio espainolaren hegemonia.

Guk ez diogu "Wellcome" pankartarik eskegiko 'Vuelta a España'-ri. Ongi-etorriarik ez, baina harrera bai. Iritsi den bidetik bueltan joan dadila esateko harrera. Kirola gustuko baina inposiziorik onartzen ez dugunok, datorren larunbatean eguerdiko 13:00etan zita dugu Iurretako errotondan, beraien normalitateak normaletik oso gutxi daukala ozen adierazteko. Iurretatik alde egin arren, Vuelta bueltan etorriko denez, gu Durangorantz abiatuko gara jai giroan. Indarrak biltzeko, 15:00etan Intxaurre aurrean luntxa gozatu eta 15:30ean Zumar kalean "Daros la vuelta!" zaratatsu batekin inposatutako normalitatea apurtuko dugu bertan. Ikusi arte.

Durangoko Ezker Abertzalea

Hitz bat gehitu behar

Lehengo asteko *Anboto*n, 'Berbaz' orrialdean, neuri egin-dako elkarriketa agertzen da.

Maisutasunez eginda daude galderak.

Nire erantzun bat, oster, agertzen denez, ez dut uste zuzena eta egiazkoa denik: "Diktaduraren kontrako lehenengo pausoak uste dut abadeengandik etorri zirela". Eze-tzean nago. Harropuzkeria izango litzateke hori esatea.

Zer egiten duen hitz bakarra kentzeak! Sorginen batek ezabatu egin du hitz hori: "ere" dugu bera.

Beraz, "Diktaduraren kontrako lehenengo pausoak uste dut abadeengandik ere etorri zirela" behar luke izan esakerak. Eta hori ukatu ezinekoa delakoan nago.

Juanito Gallastegi - Abadea

Klik batean @



Aurrekoan, Bitañon behera Izurtzara doan pistan bizikletarekin jausi nintzen. Ukalondoa apurtuta. Zorte txarra... edo ez? Lagunekin gertatutakoa komentatuz, askok esan zidaten, bertan, kanposantu aurreko erre-bueltan, makina bat ukalondo, lepauztai, sorbalda eta belaun hezur apurtu izan direla. Errebueltaren peralteak aldrebese dago, eta txirindularia bide bazterrera daroa, txoko heze batera. Beraz, errebuelta ondo ezagutu ezean bide bazterrera joateko aukera handia dago. Bada-ki krisi garaian bide konponketak zailak direla, baina dagokionari eskatuko nioke, behintzat, seinale handi eta argi bat jartzeko bertan.

Mikel Sangroniz - Durango

Sei hankako mahaia



Idolia Agorria
PSE-EE

Andragunea bi hilabetez itxita

Durangoko EAJ-PNVk berriz era-kutsi digu zein txarto kudeatzen dituen zerbitzuak, eta, gainera, oso inplikazio gutxi azaldu du berdintasunaren arloan, bi hila-betez eduki baitu itxita Andra-gunea, guretzat hain garrantzi-tsua den zerbitzua.

Lan handia egin behar izan arren, azkenean 'emakumea-ren etxea' abiarazi genuen, eta 2009. urteko martxotik aurrera dago jardunean. Hala, beraz, ez dugu ahaztu behar EAJ-PNVk itxirik izan duela 2 hilabetez. Arduradunak baja hartu zuen uztailan, eta ez zuten inor kontratatu ordezkapena egiteko. Eta, larriagoa dena, ez zuten oharrik ere jarri atean.

Behin baino gehiagotan eskatu dugu Andragunea zen-troko ordutegiak zuzen kudea ditzaten, goizez eta arratsalde-z, ahalik eta emakume gehien joan ahal izan dadin. Bestetik, orain arte egin ditugun eskakizunen artean, Andragunea etxea urte-ko hilabete guztietan zabalik egoteko eskatu dugu. Izan ere, emakumeek elkartzeko eta pres-takuntza jasotzeko dugun leku bat izateaz gain, genero-arloko gaiei buruzko informazioa, orientabidea eta aholkularitza ematen dituen gunea ere bada. Zehazki, emakumeen eskubi-deez, amatasunaz eta genero-indarkeriaz arduratzen da. Har-gatik, ez dugu ulertzen zer dela-eta egon den itxita 2 hilabetez, oporretan ere erasoak izaten baitira.

Alderdi politiko batzuk gogotsu ari gara lanean Andra-gunea gehiago zabaltzeko, eta eduki gehiagorekin eta hobea-goekin hornitzeko. Gobernu tal-deak, berriz, boikota egiten dio zerbitzu horri, baina errealita-teak argi erakusten digu behar-beharrezkoa dela egungo gizar-tean. Gogoan izan behar dugu aurten beste emakume bat hil dela, bere bikotekideak hil bai-tu; bigarrena Durangon. Nahi-taez ezabatu behar dugu izurri hori, eta instituzioek denik eta ahaleginik handiena egin behar dute horretan.

Bixente Kapanaga 9, 48215 Iurreta - astekaria@anboto.org
Izen-abizenak, telefonoa, helbidea eta NAN zenbakiagaz batera bialdu behar dira.

Alderdi, elkarte edo taldeko iritziak kide baten izenean sinatuta eta ANBOTOren iriz-pideak jarraituz zuzenduta publikatuko dira. *DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO*



anboto
durangaldeko astekaria

Anboto komunikabideak Elkarte
2011ko irailaren 9a - 10. urtea - 427 zk.

Laguntzailea:



Eta honako udal guztiak:



Zuzendaria:

Jone Guenetxea.

Erredakzio burua:

Joseba Derteano.

Administrazio burua:

Itziar Belar.

Administrazioa: Miren Abasolo.

Publizitatea: Goretzi Alonso,

Amaia Huarte.

Erredakzioa: Aitziber Basauri,

Itsaso Esteban, Markel Onandia,

Amaia Ugalde.

Maketazioa: Ainhoa Arizmendiarrtea.

Testu zuzentzailea: Igor Elortza.

Argazkilaria: Kepa Aginako eta Juanra de la Cruz.

KULTURA[>]

JAIALDIA > PLATERUENEAN

Zelan sortu zen JAPPOO elkartearen sortzeko ideia?

Lehenago ere M'Lomp elkartearen geneukan Durangon, baina ikusten genuen elkarte horrek ez zela senegaldar guztien beharrei erantzuten; elkarte haren helburua Senegalgo hegoaldeko kultura mantentzea da nagusiki, eta beharrezko ikusten genuen denok hartuko gintuena sortzea. Helburu desberdinak dauzkagu elkarte bietan, osagarriak gara, eta hartu-eman ona daukagu: sarritan kolaboratzen dugu.

“Gure kultura mantentzeko, beharrezko da bertakoei erakustea”

Zer helburu nagusi ditu JAPPOO elkarteak?

Konturatu ginen asko ginela Senegaldik hona etorritakoak, baina askotan ez genuela elkar ezagutzen. JAPPOO elkartearen sortu dugu, lehenengo eta behin, gure arteko hartu-emanaren errazteko, eta baita euskaldunekin gure kultura konpartitzeko ere. Jakitun gara gure kultura mantentzeko bertakoei ere erakutsi behar diegula.

Zertan egiten duzue lan gehien?

Elkartearen izenak, jendea batzea, elkartasuna esan gura du. Senegaldarrak eta euskaldunak harremanetzeko hainbat ekimen burutzen ditugu: biharko jaia, esaterako, edo 2009an abiatu genuen “frantses berbalaguna” deitzen duguna: gure herrialdean hizkuntza ofiziala izanik, frantses ez berba egin gura duten euskaldun-

‘Frantses berbalaguna’ deitzen dutenean batzen dira 2009tik barikuro



“Kultura da elkar ezagutzeko daukagun modurik onena”

Orain urte bi sortu zuten Senegalgo JAPPOO elkartearen Durangon; hamar lagun ziren hasieran, eta laurogei dira orain. Anboto kalean duten egoitzan elkartu gara, bihar Plateruenean egingo duten jaialdiaz galdetzeko

kin elkartzen gara barikuro, berba egiteko.

Etorkizunerako zer arlotan gura duzue indar egin?

Gure folklorea sustatzeko, elkartearen barruan dantza eta musika talde bat sortzea gura genuke, besteak beste. Bestetik, egoitza hau Senegal zer den eta nor garen erakusteko zabaldu dugu, eta gure-

“Senegal zer den, nor garen erakusteko zabaldu dugu Durangoko egoitza”

kin berba egin eta jakinmina asetu gura duenari atea zabalik daukagula ulertarazi gura diogu. Elkar ezagutzeko daukagun erarik onena da kultura.

Elkartearen gizonezkoak zaretze gehienak, ezta?

Bai, egia da, gizon gehiago gaude elkartearen, baina elkartearen zuzendaritza batzordean emaku-

me asko dago. Alor horretan ere “parekotasuna” bilatzen dugu JAPPOO elkartearen.

Zelan hartu zaituztegu?

Hamar urte inguru daramatzagu hemen, eta oso gustura gaude, baina batzuetan harrigarri egiten zaiguna da, batez ere, jende gaztearen jakinmin eza. Hain errealitate desberdinetatik etorritakoon kulturari eta abarri buruzko jakinminik ez daukaten unibertsitateko ikasleak egotea, oso deigarri egiten zaigu, esaterako.

“Harrigarri egiten zaigu bertako jende gazteak beste kulturekiko daukan jakimin eza”

Zer arlotan ikusten duzue elkartearen eta Durangoko gizartezaren arteko hartu-emanerako aukera sor litekeela?

Egiteke dugun gauzetariko bat euskara ikastea da: hartu-emanerako aukera bat izan daiteke. Askok gustatuko litzaiguke euskara ikastea. ■ I. Esteban

Senegalgo eta Afrikako kulturen jaia da bihar, irailaren 10ean, Durangoko Plateruenean ospatuko dutena. Ramadamaren amaiera jai moduan antolatu dute biharko eguna.

Senegalgo gehien hitz egiten duten wólof hizkuntzan Mbalax deitzen dutena antolatu dute biharko jairako, elkartearen kideek azaldu dutenez. “Hemengo jendeak afrikar talde bat jai batean ikusten duenean, zerbait pribatu dela pentsatzen du, eta ez da hurreratzen, baina gu zabalik gaude”, azpimarratu gura dute.

Dantza egiteko, Senegalgo wólof hizkuntzan berba egiteko, Fataya izeneko enpanadilla senegaldarrak dastatzeko eta “ondo

pasatzeko” antolatu dute biharko Platerueneko jaialdia: “Senegalgo ofiziala da, baina frantsesaz ez dugu gurea”, azaldu digute, “eta horregatik elkartearen asanbladak ere wólof egiten ditugu”.

Anboto kalean zabaldu du JAPPOO elkartearen egoitza, eta Durangoko gizartearen integrazioa gura dutela azpimarratu digute behin eta berriz: “Ezin izan daitekeena andaluziarrak, euskaldunak eta senegaldarrak bakoitzaren berean ixtea da: lotura, hartu-eman behar dugu”, diote.

Biharko jairako Plateruena hautatu dute, “Durangon erreferentziatzeko lekua delako eta denok gonbidatuta zaudetela erakutsi gura dugulako”.

Senegaleko eta Afrikako dantza, janaria eta musika



ANTZERKIA > IKASTAROA

Laugarren antzerki tailerra eskainiko du Banarte taldeak ikasturte honetan

Abadiñoko antzerki taldearen 'banarte@gmail.com' helbidean eman daiteke izena. Irailaren 29an egingo dute aurkezpena

Urrian hasi eta udaberrira artekoa izango da, Banarte antzerki taldeak antolatuta, Abadiñoko Muntzaratzen izango den antzerkigintzaren oinarri buruzko ikastaroa. Irailaren 29an egingo dute ikastaroaren aurkezpena.

Urritik maiatzera arte, astero batuko dira Banarte antzerki taldearen tailerrean jarduteko izena ematen duten lagunak.

Arte Eszenikoen Gasteizko tailerreko irakaslea den Eva Guerrero Rico aktoreak gidatuko du, azken urteetan legez, ikastaroa.

Oholtzak eragiten dituen lotsak alboratzen ikasteko ariketak eta jolasak, eta aktoreen arteko interakzioan oinarritutako jarduerak egingo dituzte.

Antzerkigintzaren alderdi fisikoak ere jorratuko dute ikastaroan; gorputzaren mugimenduak, dantza zein ahotsaren erabilera landuko dituzte.

Irailaren 29an, taldeak Muntzaratzen daukan egoitzan aurkeztuko dute ikastaroa

Arte Eszenikoen Gasteizko tailerrean irakasle den Eva Guerrerok gidatuko ditu saioak

Aurreko edizioetan moduan, azkenean hiruhilekoan ikasturte amaieran Errota kultur etxean eskainiko duten obra edo eszenak prestatzen jardungo dute.

Ikastaroak 380 euroko prezioa dauka, eta banarte@gmail.com helbidean eman daiteke izena. Gehienez ere, 15 laguneko taldea osatuko dute. ■ I.E.



Egunotan Porto, Lisboa, Durango, Bartzelona eta Valentzian eskainiko ditu Londreseko 28 urteko Anna Calvi musikariak zuzenekoak. Orain bost urte ekin zion jatorri italiarreko emakumeak bere ibilbide musikari, eta munduan zehar kontzertuak eskaintzen dihardu orain, etenik barik: diskoa aurkezteko bira abendura arte dauka lotuta, eta kontzertu mordoa eskainiko du.

Besteak beste, Edith Piaf edo Nina Simone abeslariak miresten dituen musikaria da Calvi, eta Patti Smith-ekin konparatu dute hainbat musika kritikariek.

Gitarra jotzen du Calvik, eta zuzenekoetan harmoniuma eta perkusioa ditu lagun

Gitarra jotzen du Anna Calvik, eta zuzenekoetan harmoniumak eta perkusioak lagunduta jarduten du. "Uste dut arteak ez duela zerbait erraza izan behar", irakurri diogu elkarrizketa batean, "borroka bat, erronka bat izan behar du musikak".


Kantatzen dituen letrak zein musika, kontu eta arreta handiz landutakoak direla azpimarratzen du musikari ingelesak.

Irailaren 15ean, Heineken Music Selector jaialdiaren barruan eskainiko du, 22:00etan hasita, Plateruena kafe antzokian kontzertua Anna Calvik. ■ I.E.

MUSIKA > EMANALDIA

Anna Calvi kantautore ingelesa, eguen gauean Durangoko Plateruenean, zuzenean

Musikan bost urte daramatza Anna Calvik; udatik abendura arte munduan zehar hainbat kontzertu eskainiko ditu bere lehenengo diskoa aurkezteko



GEURE DURANGALDEA



Jose Julián Bakedano
Zinegilea

Leonard Cohen eta euskaldunak

Montrealen, 1934an jaioetakoa da Cohen, jatorri judukoa. Poeta bezala (hamar liburu argitaratu ditu) abiatu zuen musika ibilbidea. Asturiasko Printzearen Letren Saria jaso du aurtan. Hamaika disko eta bederatzita bilduma eta zuzeneko plazaratu ditu.

Kantautore bezala da, batez ere, ezagun; olerki oso hunkigarriak dira bere letrak: alderdi lirikoari dagokionez, finak eta aberatsak. Montrealen, Londresen, Grezian, New Yorken eta Los Angelesen bizi izan da.

Maitasuna, erlijioa eta bikote harremanak dira bere lanaren ardatz tematiko nagusiak, eta gehiago hurre-ratzen da hitz joko eta metafora poetikoetara, ohiko folk musikara baino.

Ahots baxu sakonagaz kantatzen du Cohenek, beste kantautore askoren lanean eragin izan du, eta beste hainbat arlotako artistek ere interpretatu dituzte bere lanak. Bere musikak transmititzen duen ezkortasunari erreferentzia eginez, prentsak "munduko deprimitigarri ez kimikorik indartsuena" deitu izan du.

Sexua, maitasuna eta erlijioa ez ezik, depresio psikologikoa eta musika bera ere badira Cohenen lanean errepikatzen diren gaiak. Gatazka politikoei buruz ere jardun izan du; modu ambiguo batean, zenbaitetan.

Nobela bi argitaratu ditu, bestalde, Cohenek: *The favourite game* (1963) eta *Beautiful losers* (1966). Hain zuzen ere, azken horretan irakur daiteke gerra zibileko Euskal Herriari buruzko esaldia: "Gerrara euskaldunekin joan izana gustatuko litzaidake, ostia sakratua goratzen zuten frankisten kontra borrokatu izana".

Emanaldi bi eskaini ditu Cohenek Euskadin (Bilbon eta Donostian), eta *Bosque de sombras* (Koldo Serra, 2006) film euskaldunean entzun daitezke bere *There is a war* eta *Lover, lover, lover* kantak.

PLATERUENA Durangoko Kafe Antzokia

IRAILAK 9 22:00etan
EL MUNDO + SATORI
GAU ELEKTRONIKOA. 11-13euro.

IRAILAK 10 22:00etan
KORITE SENEGAL JAIA
AFRIKAKO DANTZA ETA MUSIKA. 5euro.

IRAILAK 15 22:00etan
ANNA CALVI
KONTZERTUA. Sarrera: 15-20euro.

IRAILAK 16 22:00etan
DISORDERS + NEVER SURRENDERS
+ DOCTORS KLUB. AGUR JAIA. Doan.

Eguneko menua astelehenetik larunbatera
Landako etorbidea, 4a 48200 Durango Tel.:946 030 300

irailaren 23an DENBORALDI

berria!

San Agustín
KULTUR
GUNEA
DURANGOKO UDALA



Hitz

liburu-denda

artekalea 14,
durango (bizkaia)
info@hitzliburudenda.com
946 810 776

eskolara buelta

 anboto



nire lehen eskola eguna

Ezagutu mundua Boboliren eskutik



www.boboli.es

Astarloa 15 - Durango · Tel. 94 623 26 32 · 0 hiletik 16. tailararte



tilin-talan

Kolore biziz mugitu

Artilezko jertseak, leggins-ak eta soinekoak, panazko prakak... ikusiko ditugu udazken honetan dendetako erakusleihoetan. Eskolara bidea tenperatura freskoagaz egin beharko dute laster etxeko txikienei. Txamarra eta txaleko koloretsuak ikusiko ditugu aurten, eta, oro har, kolore biziko arropa, kolore ilunekin nahastuta.



tilin-talan



Koloreetan,
gorria eta urdin
ilun asko
ikusiko dugu
udazken
honetan



tilin-talan



Hotzerako
aproposak
diren artilezko
jertseak eta
panazko prakak
daude dendetan



Koadrodun
alkandorak
egongo dira
aukeran, neska
zein
mutilentzat



Aurten ere ile
sintetikodun
txalekoak
eta txamarrak
aurkituko
ditugu



tilin-talan



tilin-talan

tilin-talan

umeentzako arropa denda

Errekakale 30 behe

Tel.: 94 682 03 44

tilintalan@euskalnet.net



garcia ariño kirolak



ga

Tel./Fax: 94 681 77 55

San Ignacio Auzunea, 4-A
48200 DURANGO (Bizkaia)



caribu

Sandaliak eta praka motzak armairuan uzteko garaia heldu da. Udazken honetan oinetakoei dagokienez, denetik eta denontzat dugu aukeran; kolore gris, urdin eta marroi-ko antezko zapata klasikoak, kolore askotako txarolez-ko zapata eta botak, neskentzako bota dotore eta modernoak zein korrika eroso egin dezaten kirol zapata modernoak etxeko bihurrientzat.



caribu

KOTY



KOTY

Kolore biziak kolore ilunekin nahastuta ikusiko ditugu, beltza eta urdin ilunagaz



KOTY



KOTY




KOTY

Hotzerako eta eurirako ilezko forroak eta gorotexezko oinetakoak daude aukeran

caribu




Kordeldun bota eta botin ugari dago zapata dendetan. Kolore asko daude aukeran



caribu

Eguraldiak freskatzen duenerako leotardo eta soineko asko dago aukeran



caribu



caribu

Juan Antonio Unzueta, 4
Matiena-Abadiño • 94 620 43 24

KOTY

zapatarek
politemak



ITZULI ESKOLARA PEDALEI ERAGINEZ!



5 €-ko eskola materialagatik
lortu zozketarako aukera bat.

1. SARIA - Bizikleta

2. eta 3. SARIAK - Motxilak



Zozketa urriaren
14an egingo da.

Bidebarrieta, 1 - IURRETA - 94 681 10 70

Gustura ikasten

Eskolan umeak gustura ote dabilta? Garrantzitsua da seme-alabekin eskolako kontuez berba egitea, gauzak zelan doazkien jakiteko. Will Richardson pedagogoak hainbat galdera planteatzen ditu seme-alabei egiteko. Adibidez: "Ezer esanguratsurik egin duzu gaur?", "Zerk harritu zaitu?", "Baduzu galderarik erantzun barik oraindik?", "Zer ikasi dute gaur zure irakasleek?", "Zertaz jakin gura duzu gehiago?", "Zer gustatu zaizu gaur?", "Zerk eragin dizu barrea?" .



motibazioa

Umeek nagusiek esandakoetatik baino gehiago, egiten dituzten ekintzetatik ikasten dute. Gauza berriak ikasteko irrika erakusten duten gurasoek, beraz, hori transmititu egiten dute euren inguruan. Umeek etxean ikusten dutenaren garrantzia jabetuta, Jesus Alonso Tapia irakasleak hainbat aholku ematen ditu motibazioaren inguruan:

1 Emaiztezi begira egon baino, egindako ahaleginari garrantzia eman

2 Umeak ez du oraindik hainbat ekintza burutzeko gaitasuna edukiko. Ez derrigotu ez bultzatu ekin-tza horietara.

3 Bere gaitasunetan sinestu

4 Aisialdian ere ikasteak duen balioa transmititu: bere galderei erantzuna bilatzen irakatsi, bere jardueretan ilusioz parte hartu eta bere lorpenekin poza adierazi

ART LEKU MARRAZKETA ETA PINTURA ESKOLAK **haurrak eta helduak** www.artleku.com
Zehar Kalea, Durango - 94 466 81 41/608 939 719



- Marrazketa (ikatz-ziria, sepia, arkatza, pastela)
- Akwarela • Olia/Akriliko
- Arte Ederretan sartzeko prestakuntza
- Arte Terapia (adierazpen plastikoa)
- Ekialdeko Arte (kaligrafia, pintura)

Talde txikiak.
Astelehena-ostirala:
10:30-13:00/17:00-20:00
Larunbatak: 11:00-13:00

Arte Ederretan lizentziatutako irakaslea, Madrilgo Complutense unibertsitatean



behar duzun eskola-materiala!

- Testu liburuak
- Hezkuntza eskolako liburuak

Kalebarria, z/g • 48200 Durango
Tel.: 94 620 18 93 • Fax: 94 681 64 03

URTXINTXA
HEZIKETA JOSTAILUAK-ESKULANAK

Andra Mari kalea, 9 DURANGO

Tel.: 94 681 50 17

aek-k

hitza ematen dizu

euskara ikasi eta euskaraz jakingo duzu



eman izena

DURANGALDEKO AEK

DURANGO
94 681 73 49
607159205

ZORNOTZA
94 673 43 70
607151917

ELORRIO
94 658 21 11
607600901

Euskalduntze maila guztiak
Hizkuntz Eskakizunak (B1,B2,C1,C2)
3. eta 4. maila: presentzialak / on-line
Autoikaskuntza

www.aek.org
902 362 294

aek

Garena ikasteko
para entendernos
pour se comprendre

Etxeko lanak



Etxeko lanak egiteko ikastorduak egunero ordutegi berean ipintzen saiatuko gara, ikasteko mahai egoki batean. Txikitan, batez ere, ondoan jesartzea komeni da. Nagusitzen doazen heinean, etxeko lanak bakarrik egingo dituzte eta gurasoen zeregina izango da denak egin dituztela ziurtatzea. Errefortzua behar duela ikusiz gero, klase partikularrak hartzeko aukera dago. Adituek diotenez, partikularren aukera denbora baterako soluziotzat hartzea komeni da. Irakasle partikularrak lehenengo irakatsi behar duena nola ikasi eta lana nola antolatu da. Umeak jakin behar du laguntza hori ez dela betirako izango.

Partikularrak denboraldi baterako soluzioa dira; ez betirako laguntza



Motxila lar beteta?

Estatistikek diotenez, 13 eta 15 urte bitarteko mutilen erdiak eta nesken % 70ek bizkarreko mina edukitzen du lantzean behin. Adituek diote motxilan ezin dela umeak daukan pisuaren % 10 baino gehiago eramanean, baina sei urtetik gorako hiru ikasletik batek bere pisuaren % 35 eramanean du bizkarrean. 10 urtetik gora hasten dira bizkarreko minak. Ariketa fisikorik egiten ez badute, gainera, bizkarreko muskuluek indarra galtzen dute, eta mina jasateko arriskua handiagoa da. Mahaian eta ordenagailu aurrean zelan jarri ikastea da beste ikasgai garrantzitsu bat.



UDAL
EUSKALTEGIA
DURANGO
Udala • Ayuntamiento



DURANGOKO UDAL EUSKALTEGIA
2011-2012 IKASTURTEA

Matrikula: Irailaren 1etik 20ra

euskaltegia@durango-udala.net
Tel.: 94 603 00 40

HELBIDE BERRIA: Saibi kalea, 10-3A • Durango



Kurutziaga Akademia

Aerografia • Bitxigintza • Marrazkigintza eta pintura • Maketak eta modelismoa

ARTE EDERRAK

Ume eta nagusientzako pintura eta marrazkigintza kurtsoak

MATRIKULA ZABALIK

• Astelehenetik ostiralera
• Goiz eta arratsaldeko ordutegia

Tel.: 94 603 05 27

Informa zaitez konprometzu gabe

info@academiakurutziaga.com • www.academiakurutziaga.com



KAMIKOPIAK
KOPISTEGIA

Fotokopiak • Enkuadernazioak • Plotterak
Planoak • Papergintza • Inprimaketa digitala

Berriotxoa kalea 9
Tel.-Faxa 94 623 14 31
48230 ELORRIO
kamikopias@gmail.com





Musika Moderno Gunea eta Umeentzako Musika

Alluitz, 3 behea • Durango • Tel.: 94 603 27 50 • www.rockizarra.com • info@rockizarra.com

Gitarra • Pianoa • Bateria • Baxua • Rock eta Jazz konboak • Lengoaia
Musikala • Harmonia • Grabaketa eta Informatika Musikala • Saxoa •
Bibolina • Trikitixa • Akordeoia • Panderoa • Zeharkako txirula •
AUDIO TEKNIKARI DIPLOMA PROFESIONALA

matrikula zabalik

ORAIN:
Garraio
zerbitzu
berria

Zure haurrak eskolan hartuko ditugu, Rock Izar
Eskolara eraman eta klaseak amaitzean zeuk
esandako lekuan utziko ditugu.
Hori guztia hilean 5 euro gehiago ordainduta.

Irakasle onenak eta instalazio moderno eta erosoak Durango erdialdean

JOLASTU DO-RE-MI-an!

4-12 URTE BITARTEKO UMEENTZAT

LAU URTETIK AURRERAKO UMEEK EUREN SORMEN ETA AHALMEN
MUSIKALA LANTZEN DUTE TALDE MURRIZTUETAN, NATURALITASUNEZ
ETA ERA DIBERTIGARRIAN.

info@rockizarra.com



ZINEMA> EMANALDIA

Ezkontza behartuei buruzko dokumentala, Hilean Behin-go lehenengoa aurten

Sampat Pal izeneko emakumearen istorioa da datorren egunean emango duten filmak erakusten duena

Iaz, Indian eta Ingalaterran ekoiztirikoa da irailaren 15ean Elorrioko Iturri kultur etxean, Hilean Behin dokumentalen emanaldian, ikusgai izango duguna. Europan ezagunenetarikoa den Kim Longinotto dokumental zuzendariarena da filma. Gai polemiko eta zailak sentsibilitate handiz jorratzen dituen egilea da Longinotto. Lehenago ere Hilean Behin zikloaren barruan ezagutu izan ditugu bere beste lan batzuk.

Kasu honetan, ikasturte berriko lehenengo filma izateko *Sari arrosen iraultza* hautatu dute: ezkontza behartuei buruzkoa da dokumentala, eta Sampat Pal izeneko emakumearen istorioa da kontatzen duena. ■ I.E.

ARGAZKIGINTZA>

Herriko baserrien argazkiak, udalaren 2012ko egutegia osatzeko

"Tokiko baserriak" gaia aukeratu dute Abadiñoko Udalaren 2012ko egutegirako argazkiak aukeratzeko. Lehiaketa bidez hautatuko dituzte egutegia osatuko duten hamabi argazkiak.

Lehiaketan parte hartu gura dutenek, irailaren 30era arteko epea izango dute lanak aurkezteko. Gehienez, lau argazki aurkeztu ahaliko ditu bakoitzak.

Antolatzaileen berbetan, "herriko baserri batzuen edertasun estetiko eta garrantzia arkitetontikoa ezagutzera ematea" da lehiaketaren helburua.

Udalaren webgunean topatuko duzue informazio gehiago. ■ I.E.

MUSIKA> KONTZERTUAK

Plateruenean eta Zaldibarren joko du Disorders-ek desegin aurretik

Hamarkada honetan ondoan izan dituzten lagunei eskerrak emateko, kontzertu bi eskainiko ditu **Disorders** boskote zaldibartarrak taldea desegin aurretik: irailaren 16an Plateruenean, eta urriaren 1ean Zaldibarren



Plateruenean, irailaren 16an, eskainiko du despedidarako antolatutako kontzertuetako bat Zaldibarko Disorders taldeak: bertan une oso politak igaro izan dituztelako hautatu dute Plateruena agurrerako, azaldu digutenez. Lagunak dituzten Doctors Klub eta Never Surrender taldeekin joko dute: "Gurekin eszenatokia konpartitu dutenekin jardutea gura genuen". Bertarazten direnek Disordersekin jo izan duten beste talde batzuetako seizazpi musikariren kolaborazioa ere gozatu ahaliko dute Plateruenean. Sorpresa izango da.

"Azken-azken kontzertua, baina, Zaldibarren" eskainiko dute. Hasiera batean kontzertua Gaztetxean egitea zen plana: hamarkada honetan, eta "ozto-

Never Surrender eta Doctors Klub izango dituzte lagun Durangon

Azken urtean "nekea igarri" dutelako erabaki dute Disorders desegitea

poak oztopo, taldeak iraun dezan lagundu gaituzten guztiak eskertzeko". Jende asko itxaroten dute, Gaztetxe barruan barik, futbol zelai zaharrean ipiniko duten karpan eskainiko dute kontzertua. Kontzertu luzea emango dute: disko bietako abesti denak, grabatuta ez dagoen abesti zaharren bat, eta jendearen gustuko bertsoak joko dituzte.

Azken urtean, iazko irailean diskoa kaleratu zutenetik, nekea igarri dutela-eta erabaki zuten Disorders desegitea, orain hiru hile: "Diskoa kaleratu genuenean ez genuen pentsatzen urtebetera hau gertatuko zenik, baina denon erabakia izan da", diote.

Taldeakide batek ere ez dauka beste proiekturik oraingoz, baina guztiek gura dute zelanbait musi-

kagaz lotuta jarraitzea.

Orain hiru hilabete taldea desegiteko erabakia hartu zutenean ipinitako data ailegatu denean, sentitzen dutena "pena oso handia" dela diote Disorders taldeko kideek.

Azken asteetan hainbat aldiz elkartu eta "nostalgiaz" gauzak gogoratzen jardun dutela kontatu digute: bereziki gogoratzen dituzten kontzertuak—Plateruenekoak eta Zaldibarren zein Abadiñon eskainitakoak—, edo Zaldibartik abiatuta lagunekin egin dako bidaiak: "Autobusa hartu eta hogeita hamar lagun Alegian eskainiko genuen kontzertua ikustera etortzea...".

Platerueneko eta Zaldibarko agurretan ere, hainbat herrikide eta lagun itxaroten dituzte. ■ I.E.

4 ETA... 100 URTE BITARTEKOA BAZARA ETA MUSIKA IKASI ETA GOZATZEKO GOGORIK BADUZU, ERDU MUSIKA ESKOLARA

MATRIKULA-EPEA ZABALIK URRIAREN 1A ARTE

MONTEVIDEO 7 • TEL.: 94 603 00 35
BERTZILLA@DURANGO-UDALA.NET

Matrikulatzeko lekua: Musika Eskolako Idazkaritza
Ordutegia: Astelehenetik barikura 11:30-15:30 eta 16:00-19:00
(telefono bidez ere egin daiteke)

Bartolome Ertzilla Kontserbatorioa eta Musika Eskola
DURANGO UDALA

Escuela de Música y Conservatorio Bartolomé Ertzilla
AYTO. de DURANGO

OSASUN GIDA



PEDAGOGIA



UMEAREN GARAPENERAKO ZENTROA

Laguntza goiztiarra, Psikomotrizitatea,
Fisioterapia, Logopedia

Juan de Olazarán, 1 behea
48200 DURANGO

tf: 94 466 83 70 - 615 782 090

FISIOTERAPIA



Zainduz

FISIOTERAPIA OSTEOPATIA

Ane Legorburu Munitxa

Trañabarren 13, 4. blokea, behe-eskuma
48220 MATIENA-ABADIÑO

tf. 94 465 71 32
mug. 686 906 374

PODOLOGIA



Gaixotasunak - Ortopedia
Oinaren kirurgia

IMQ - SANITAS - ARESA
Ermodo, 2- 1. eskuma • DURANGO
tf: 94 620 11 00

ODONTOLOGIA



B. UNAMUNZAGA E. ETXEBARRIA

ODONTOLOGIA OROKORRA
ETA ESPEZIALITATEAK

Murueta Torre, 2- C behea
48200 DURANGO

tf: 94 681 99 51



HIRU FISIOTERAPIA

astelehenetik - ostiralera 08:00 - 21:00
larunbatak 09:00 - 13:00

Antso Estegiz, 4
48200 DURANGO

tf. 94 466 94 00



GOIATZ MURUA LETURIAGA

PODOLOGOIA
Kiroprodia, Onikopatía, Alterazio
Dermatologikoak, Ibilkerako alterazioak

Monago Torre, 4- behea
48200 DURANGO

tf: 94 620 36 30



J.L. URRETA ZABALO

MEDIKU ESTOMATOLOGOIA
IMQ, PADI (umeen hortz programa)
ortodontzia

Zumalakarregi 18- 1. ezk.
48200 DURANGO

tf: 94 681 22 00



FISIOTERAPIA ETA ERREHABILITAZIOA

Erditze aurreko eta ostekoa, txisari
ezin eustea, traumatologia, kirola, trafikoko istripua,
drainatze linfatikoa(masektomia ondoren),...

Iturriza, 44 -behe ezk.
48240 BERRIZ

tf. 94 622 55 93

ESTETIKA

OSASUN ESTETIKA ZENTROA Dra. Aguirre

Laser berria:

Tatuajeak behin betiko kentzeko laserra

Obesitate-zelulitis;
Laser: depilazioa (prezio bereziak), barizeak...
Adinen kontrako tratamenduak: orbanak, botox...

Txatxiena 6
48200 DURANGO

tf. 94 681 03 87

KIROMASAJEA



KIROMASAJEA DIGITOPUNTURA

Komentu kalea 15
48200 DURANGO

tf. 94 620 00 52

PSIKOLOGIA



JON ARRUBARRENA

PSIKOLOGO KLINIKOIA
PORTAERA TERAPIAN MASTERDUNA

- Antsietatea, estresa, fobiak
- Depresioa
- Eskola arazoak

Urreak - Nagusiak - Bikoteak

Francisco Ibarra, 6
jon@psikologo.biz

Durango
www.psikologo.biz

tf: 94 603 32 46 - 629 245 728

KIROLAK >

“Debutatu nuen egunean nituen ilusioa eta gogoa mantentzen ditut oraindik”



Taldeakideek oso ondo hartu dutela dio, eta dagoeneko taldera eginda dagoela. Miguel A. Parejo

Ustaritz Aldekoa-Otalorak Sevillako Betis taldean jokatu du urtebete, Athleticen utzita. Esperientzia berria da abadiñararentzat: profesional legeaz lehenengoz jokatu du Athletic ez den beste talde batean.

Orain arte zer sentipen utzi dizkizu horko bizimoduak?

Nire taldekideek oso ondo hartu naute, eta alde horretatik pozik nago. Talde berri batera zoazenean, beti izaten duzu kezka hori eta; egia esanda, ezin naiz kexatu. Hiriari dagokionez, oraindik ez dut toki asko ezagutzeko aukerarik izan, baina apurka-apurka etorriko da horretarako astia ere.

Hau da futbol profesionalean kanpora zoazen lehenengo aldia. Aldaketa handia da. Familia, lagunak... Euskal Herrian geratu dira. Ohitu egin beharko dut! Ez dago besterik. Dena dela, ahaleginduko naiz lantzean behin etxera osterak egiten.

Esperientzia berriak aberasgarriak izan daitezke.

Arlo askotatik, gainera: bizimo-

“Asko poztu nintzen Iturrasparen golagaz; maila oneko jokalaria da”

“Oraindik emateko asko daukadala erakutsi gura dut Betisen”

duan, arlo profesionalean... Urtebeterako utzita etorri naiz; ea esperientzia aberasgarria den eta datorren urtean bueltatzeko modua daukadan.

Futbolariak sare sozialak sarritan erabiltzen dituzte kontaktua mantentzeko. Zuk ere bai?

Twitter orrialdea daukat, eta erabilgarria da lagun, ezagun zein zaleekin hartu-eman sustatzeko. Ez naiz ohiko erabiltzailea; batzuetan erabiltzen dut mezuak bidali edo iritzia emateko.

Beñat Etxebarria igorreztarra taldekide duzu. Taldean euskaldun bat egoteak lagundu dizu?

Athleticen egon zenetik ezagutzen dut Beñat. Hona etorri eta segituan beragana jo nuen, lehenengo egunetan lagundu ziezadan eskatuz. Taldera bertakotzen lagundu dit, eta dagoeneko taldeko bat gehiago naizela esan dezaket. Asko eskertzen diot.

Futbol arloari dagokionez, zer erakutsi gura duzu Betisen?

Apurka-apurka taldean sartuz, partidak jokatzeko eta minutuak pilotatzea ditut helburu. Oraindik,

futboleko zer eskaini handia geratzen zaidala erakutsi gura dut, eta Athleticengaz debutatu nuen urtean nituen ilusioa eta gogoa mantentzen ditut.

Athleticen, jarraikortasuna falta izan zaizu lesioen ondorioz.

Horretara etorri naiz, ahalik eta gehien jokatzera. Titular postu bat irabazten eta hortxe mantentzen saiatuko naiz.

Lesioak bakean uzten ez zintuzten sasoiak izan dira profesional legeaz izan dituzun unerik gogorrenak?

Bai, une txar batzuk igaro nituen; ez zen samurra izan. Hala ere, ahaztu dut bolada hura; erreku-peratuta nago, ez dut lesiorik, eta etorkizunari aurre egiteko indar berriturik sentitzen naiz.

Betisek zer helburu ditu orain?

Orain arte ikusi dudaren arabera, baloia jokatzeko gustatzen zaio taldeari; kalitatezko jokalaria egon badaude. Gauzak itxaroten dudan moduan irteten badira, mailari eusteko ez genuke sufritu behar. Faktore asko hartu behar dira kontuan, jakina, zortea tarteko, baina talde polita eta erakargarria dugula uste dut.

Athleticen, aurtengo ligako debutean, zure herrikide den Iturraspe protagonista izan zen.

Txikitatik ezagutzen dut eta asko poztu nintzen beragatik gola sartu zuenean. Anderrek ere une txarrak pasatu ditu, jokatzeko ez zuela ikusita. Sartutako golak konfiantza emango diola uste dut, eta badakigu maila oneko jokalaria eta ofizio handikoa dela.

Athleticek, aldiz, hasiera gazi-gozoa izan du.

Ikusi nuen Rayoren kontrako partida. Taldeari minutuak falta zaizkio oraindik, elkarrengatik partidak gehiagotan jardutea. Dena

Ustaritz Aldekoa-Otalora

Jaioterria: Abadiño
Adina: 28 urte
Garaiera: 1.83 metro
Postua: Erdiko defentsa

IBILBIDEA

Baskonia: 2001/03
- Guztira: 42 partida
Bilbao Athletic: 2003/06
- Guztira: 57 partida
Athletic Club: 2006/2011
- Guztira: 108 partida
Betis: 2011/12

dela, nabari da Athleticen talde sendoa duela. Jokalari oso onak daude, eta seguru nago denboraldi ona egingo duela.

Andaluzia aldean ezizenak ipini zaleak dira. Baduzu dagoeneko ezizenik?

Beñat “El vasco” da. Ni oraindik ez naute bataiatu. Ez dakit nire ezizena ere Beñatenaren bidetik joango ote den, baina seguru buelta batzuk eman dizkiotela dagoeneko.

Aurten Bartzelonaren eta Real Madrilaren nagusitasuna gehiegizkoa dela pentsatzen duzu?

Ez dakit gehiegizkoa den, baina beste guztien gainetik daudela garbi dago. Gol askoko partidak ikusi gura badira ondo dago, talde bi horiek sartuko dituzte, baina lehiakortasunaren aldetik ez daukat hain argi.

Udan bero itzela egin ohi du Sevillan. Zelako eguraldia suertatu zaizu orain arte?

Egun batzuetan bero izugarria egiten du; etxetik irtetea ere kostatu egiten da. Baina gauza denetara legeaz, ohitu egiten zara azkenean. ■ J. Derteano



Munduko Kopan sartu dute Sorginen Lasterketa

Beste lasterketa bat bertan behera geratu denez, etzi korrituko den Sorginen Lasterketa Munduko Kopako zirkuituan sartu dute



Iaz Kortabarriak eta Condek irabazi zuten lasterketa; orain urte bi, Osak eta Txuekak.

Urtero goi mailako korrikalariak batzen badira, aurtent puntakoetan punta-koenak lehiatuko dira domekako Sorginen Lasterketan. Atxondoko mendi maratoni erdiak laugarren aldia egingo du aurtent, eta Munduko Koparako puntuagarria izango da. Izan ere, Portugalen korritzekoa zen Carreira dos 3 Cántaros lasterketa bertan behar geratu da, eta korrikalari bat ere kaltetuta irten ez dadin —sailkapenerako puntu garrantzitsuak zeuden jokoan— Sorginen Lasterketa Munduko Kopako zirkuituan sartzea erabaki du nazioarteko Skyrunning federazioak.

Ibilbideak 25,6 kilometro ditu, eta desnibel positiboa 1.300 metrokoa da. Lasterketa

09:30ean abiatuko dute lasterketa Axpen; ibilbide luzeak 25,6 kilometro ditu

domekan 09:30ean hasiko da, Axpeko San Juan plazan.

Urtero legez, arauzko ibilbideaz gainera, 15 kilometroko laburrago bat ere prestatu dute. Axpe, Pol-Pol, Zabalaundi eta Aramaio bidegurutzetik aurrera, Topera jaitziko dira korrikalariak; ibilbide laburra aukeratu dutenek hantxe izango dute helmuga. Ibilbide osoa egingo

dutenak Betsaide, Pagaskorta eta San Roketik joango dira, Axpen helmugaratu aurretik.

Kortazar liderra ez dator

Une honetan, Euskal Selektzioko Oihana Kortazar lider dago. Modalitate honetan aurtent lasterketa bat baino gehiago irabazi duenez, etziko lasterketan parte ez hartzea eta indarrak irailaren 18an Italiako Grignen korrituko den lasterketarako gordetzea erabaki du. Izan ere, modalitate horretan aurtent ez du garaipenik. Dena dela, Kortazarrek munduko txapeldun izateko aukera handiak ditu.

Gizonetan Luis Alberto Hernandez da liderra parte hartzaileen zerrendan dago. ■ J.D.

erabaki dezake etapako garai-lea nor izango den; 185 kilometro dituen etapa Gasteizen amaituko da, arratsaldeko 17:40 inguruan.

Elorri eta Durangon

Elorri lasterketa herrigunetik pasatzea aurreikusita zegoen hasiera batean; "baina Ferixa Nagusiko jaiak direla-eta azkenean saihesbidetik igaroko dira", Ana Otadui alkateak argitu duenez.

Durango, aldiz, herrigunera sartuko da Espainiako Itzulia. Larrasoloetatik eta Zumar kale-lik igaroko dira txirrindulariak. Ondoren, Arriuzetatik jaitz eta handik saihesbidea hartuko dute, Izurtza eta Mañaria igaro eta Urkiolako mendatea igotzen hasteko. ■ J.D.

Durango herrigunera sartuko dira Zumar eta Arriuzea kaleetatik

Espainiako Itzulia pasatuko da bihar Durangaldetik, bitan

Eguerdian Amorebita-Etxanotik Mallabirantz joango da; arratsaldean Elorriotik sartuko da

Zapatuan Espainiako Itzuliko azken aurreko etapa, Bilbon hasi eta Gasteizen amaituko dena, birritan pasatuko da Durangaldetik. 13:15 inguruan Amorebieta-Etxanora helduko dira txirrindulariak; handik lurretara, Durango (13:34 inguru), Abadiño, Berriz eta Zaldibar (13:45) igaro eta Areitio gainetik Ermurantz eta Eibarrerantz joango dira.

Arratsaldean, berriz, Arrasatetik sartuko da etapa

eskualdean; Kanpazar jaitzi eta Elorrio (16:00 inguruan), Atxondo, Abadiño, Durango eta Mañaria (16:20) zeharkatuko dituzte, Urkiolan gora hasi aurretik. Urkiolako mendateak

Ruben Perez
•Euskaltel-Euskadiko txirrindularia



Etiket gertu

Adituarentxokoa

Espainiako Itzulia amaitzeaz dago, Madrilen, baina aurretik gure etxe ondokigaro behar dute txirrindulariek. Bilboko etapa oso polita izan daitekeela uste dut, Viverorako igoera helmugatik 10 kilometro ingurura dagoelako. Hurrengo eguneko etapagatik ere beste hainbeste esan daiteke, Urkiolako mendatea helmugatik 40 kilometro baitago.

Aurtent ezin dut itzulia bertatik bertara jarraitu, baina lehiatzen ari diren taldekideekin berba egin dut; ikaragarri gogorra izaten ari dela esan didate, baita sprintean amaitu izan diren ordeko lasterketak ere. Ibilbidea berez gogorra bada, beroak areagotu egiten du txirrindularien ahalegina.

Baina, aldi berean, etapa bat irabazten saiatzeko ilusioz beteta daude Euskaltel-Euskadiko taldekideak. Esandako moduan, etapa erakargarri bi dituzte aurretik: Bilbokoa eta Gasteizkoa, gaur eta bihar. Mendiko azken etapetan taldea oso lehiakor eta gogotsu ibili da. Euren etxe albotik pasatzeak, euren lagun eta senitartekoen animoak bertatik bertara jasotzeak, etapa irabazteko behar den indar extra hori emango diela itxaroten dut.

Bestalde, ezin dezaket aipatu gabe utzi Juan José Covok egindako Anglirurako igoera. Ikaragarria izan zen Covoren jarduna. Uste dut, oker handirik ezean, bera izango dela itzuliko irabazlea. Beraz, zorionak berari.

Gaztetxoei begirako duatloia Muntzaratzen

13 urtetik beherakoei zuzendutako duatloia antolatu du Laubideta taldeak

Abadiñoako Laubideta triatlói taldeak II. Duatloi Txikia antolatu du domekan, 11:30ean, Muntzaratzen; auzoko jaiak direla aprobetxatuko dute. Gazteei duatloi mundua ezagutzera emateko helburua duen ekitaldian 13 urtetik beherako gaztetxoek parte hartu ahal izango dute. Izena ematea doan da, eta egunean bertan eman ahal dute parte hartu gura dutenek, 10:00etatik 11:00etara, Muntzaratzeko aterpean.

Iaz 120 gaztetxok parte hartu zuten ekimenean, eta orduko arrakastak animatu ditu Laubidetako kideak aurtent ere duatloi txikia antolatzea. ■ J.D.

Izen-ematea doakoa da; lasterketak 11:30ean hasiko dira, adin tarteen arabera hurrenkeran



Iaz 120 gaztetxok parte hartu zuten duatloian. Laubideta

Herri Torrontegi omenduko dute etzi, Motorshow-ean

Omenaldiaz gainera, supermoto eta motor klasikoen lasterketak ere egingo dituzte Abadiñoko Astolan egokitutako zirkuituan



Urtero motor zaleen bilgune bihurtzen da Motorshow jaialdia Abadiñon.

Domekan seigarren aldia egingo du Asier Martinezen oroimenez antolatutako Motorshow jaialdiak. Abadiñoko Astolako industriagunean egokitutako zirkuituan, mota askotako erakustaldiak egongo dira: Supermotoko Euskadiko Txapelketako azken aurreko lasterketa, motor klasikoen erakustaldia eta rally kotxeen erakustaldia, esaterako.

15:00etan entrenamendu libre break burutuko dituzte, eta 17:00etan hasiko dira lasterke-

Ivan Tarsaciok autoan eta Fly Group Racing Taldea motorrean, erakustaldirako prest

ta guztietako lehenengo txandak. Ondoren, bigarren txandari ekin aurretik, 18:00ak inguruan, hainbat ekitaldi prestatu dituzte. Batetik, Herri Torrontegi motor gidari ohia omenduko dute: "Motor munduan gabiltzanontzat ikono bat da", dio Aitor Martinez motor gidari abadiñarrak. Torrontegi gorliztarrak Suzuki, Aprilia eta Honda lako eskuderia garrantzitsuetan jardun zuen 1990eko hamarkadan.

Bi txanden arteko denbora tartea Fly Group Racing Team talde berria jendaurrean aurkez-

teko ere baliatuko dute. Motor gaineko erakustaldia egingo dute zirkuituan zehar.

Autoek ere izango dute euren tartea eta, besteak beste, Ivan Tarsaciok bere iaioasuna erakutsiko du Ford Scort Coswortharen bolantean.

Supermotoko Euskadiko txapelketan bigarren dago gaur egun Aitor Martinez, Abel Urizarbarrenaren atzetik. Klasikoen lasterketan, berriz, Faustino Hernandez da irabazteko faborito nagusia.

Zirkuituaren inguruan arropa denda bat, edari gune bi eta motor taldeen erakusketak ere atonduko dituzte. ■ J.D.

ORDUTEGIA

15:00etatik 17:00etara:

- Entrenamendu libre break

17:00etan:

- Motor klasikoen lehen txanda

17:20an:

- Supermotorren lehen txanda

17:40an:

- Rally erakustaldia

18:00etan:

- Herri Torrontegiri omenaldia

- Fly Group Racing Team taldearen aurkezpena

18:20an:

- Bigarren txandak

19:00etan:

- Sari banaketa

Lourdes Oiarbide Espainiako txapeldun erlojupekoan

Gazteen mailako txapelketa irabazi du Durangoko Beste Alde taldeko ziklistak

Lourdes Oiarbide arabarrak —Beste Alde taldea— gazteen mailako Espainiako erlojupeko txapelketa irabazi du Bejarren. Euskal Selekzioak, oro har, emaitza ezin hobeak lortu ditu. Izan ere, Oiarbidek Irene Usabiaga eta Eider Moreno taldeki-deak izan ditu ezker-eskuma podiumean.

Horrez gainera, pistako lasterketan laugarren geratu da Oiarbide; Moreno izan da lehenengo eta Usabiaga hirugarren.

Lejarreta eta Usabiaga

Bestalde, Iñaki Lejarreta 14. izan da Suitzako Champéry

herrian jokaturako Munduko Mountain Bike Txapelketan. Beretzat ez zen zirkuitu aproposa, baina sasoiko azaldu zen berriztarra.

Sasoiko aritu zen Cespa Euskadi taldeko Ana Usabiaga ere, pistan, Donostiako Anoeta belodromoan jokaturako Euskadiko Txapelketan. Omnium modalitatean bera izan zen txapeldun. Gizonetan, garaipena gertu izan zuen Cespa Euskadiko Unai Elorriagak, baina azkenean bigarren geratu zen Euskaltel Euskadiko Mikel Astarlozaren atzetik. Illart Zuazubiskar sailkatu zen hirugarren. ■ J.D.

Mugarako Gurutze Fradesek irabazi du Soriako triatloia



Durangoko Mugarra triatloi taldeko Gurutze Frades iurretarrak irabazi zuen, joan zen domekan, Malvasiako (Soria) lehenengo triatloia (04.34.37). Bigarren sailkatuari 16 minututik gorako aldea atera zion. Lasterketa distantzia luzeko ranking-erako puntuagarria zen. Urriaren 30ean Ibizako triatloian parte hartzen badu modalitate horretan txapeldun geratzeko aukerak ditu. Uztailean distantzia olinpikoko Euskadiko Txapelketa ere irabazi zuen Fradesek.

Emakumeen lehen futbito txapelketa Muntzaratzen

Zapatuan emakumeen lehenengo futbito txapelketa jokatu dute Muntzaratzen. Guztira, lau taldek parte hartuko dute txapelketan. 11:00etan finalaurrekoak hasiko dira, eta, ondoren, bi talde irabazleek finala jokatu dute. Finalera heltzen diren talde bientzako sariak egongo dira.

Auzotarren ekimenez antolatuko dute bihar jokatu den futbito txapelketa. Auzoan horrelako lehiaketa bat antolatzeari interesgarria izango litza-tekeela pentsatu zuten hainbat auzotarrek, eta Muntzaratz auzo elkartearen bitartez antolatu dute txapelketa. ■ J.D.

Durangaldeko Baserritarren Elkartea



Murueta, 6
Tel.: 94 681 87 92
48200 ABADIÑO BIZKAIA

Hurrengo eraikuntza

IURRETA

ZARATE ELEXPE
ERAGILEAK

Bixente Kapanaga 19, behea • Tel.: 94 681 66 73
Iurreta • www.zarateyelexpe.com

Elorrion ere aukera onak

laguntzaileak



ABADIÑOKO
UDALA



ATXONDOKO
UDALA



DURANGOKO
UDALA



ELORRIOKO
UDALA



MALLABIKO
UDALA

LAUHANKA[>]



Trumoiak jotzean edo aurretik, txakur askok erreakzionatu egingo du

Beldur handiagaz, dardarak eta gonbitoak jasan ditzazkete

Trumoiak jotzean, musika edo telebista altu ipinita distraitu dezakegu txakurra

Trumoiari beldurra edukitzea ez da txakur arrazen arabera

Txakur askori gertatzen zaie, trumoi denean, beldurra sentitu eta babeserako beharra izatea. Ez da baina arraza, adin edo sexuaren arabera sentsazioa. Aurreikusi ere egiten ei dute txakur batzuek.

Oraindik ez dago batere argi txakurrek zergatik dioten horrenbesteko beldurra trumoiari. Teoria batzuen arabera, animalia hau genetikoki prestatuta dago sentsazio hori izateko, baina iritzi hau ere ez dago frogatua. Normalena, beldurraren oinarrian esperientzia txarren bat egotea litzateke.

Argitaratutako ikerketa batek dioenez, txakurren %30ek trumoi eta antzeko zarata handiak aurreikusteko gaitasuna dauka. Modu horretan, zarata entzun aurretik estualdia pairatu eta kaleratuko lukete. Ikerketaren arabera, aurreikuspeneko gaitasun hau ikasketen prozesu baten eragi-

nez eskuratzen dute. XIX. mendean Paulovek asmatutako baldintzako isladaren legeagaz lotu dute, txakurrak errepikatutako esperientziatik ikasten duela argudiatuz. Trumoi ez eze, horren aurretik adierazle batzuk ere ezagutzen ei ditu, bere jarreraren eraginez.

Erreakzioa

Beraz, batzuek trumoiak jotzerakoan eta beste batzuek aurretik, txakur askok erreakzionatu egingo du une horietan. Etxean sartu gura izatea, atean hazka egitea zein jabearen kontaktua bilatzea egon daitezke erreakzio horien artean; beldur handia edukitzen duten txakurrek dar-

dara eta gonbitoak ere jasan ditzazkete.

Alternatibak

Arazoari aurre egiteko irtenbideak planteatu dituzte adituek: fobia arintzeko trebakuntza prozesuak, etxean gune seguru bat sortzea eta antsiolitikoen erabilera, kasurako.

Etxeke gune seguruak leku itxi eta iluna izan beharko du. Trateslekua edo armairu bat aukeren artean daude. Hori bai, komeni da jabea bertan izatea, seguruago sentitzeko; manta batez estaltzea ere eskertuko du txakurrak. Musika edo telebista altu ipinita, zarata murriztu eta distraitu egin dezakegu.



INMOBILIARIAK >



AMBOTO
INMOBILIARIA

San Agustinalde, 4 - 1 ezk • 48200 DURANGO
Tel.: 94 681 35 62 • iamboto@euskalnet.net

ETXEBIZITZAK SALGAI

DURANGO

- ASKATASUN ETORBIDEA: 3 logela, egongela, eskegitokia eta 2 komun. 2 balkoi. Ganbara eta garajea. Zatoz ikustera.
- HERRIKO GUDARIEN: 3 logela, 2 komun, sukaldea eskegitokiarekin eta egongela balkoiarekin. Ganbara eta garajea. PREZIO ZORAGARRIA.
- Apartamentu berriak eraikitzen.700€ hilero. EZ GALDU AUKERA HAU.
- ERDIALDEA: AZKENEKO APARTAMENTUA. Logela bat edo bikoak, sukalde jantzia, komuna eta horma-armairuak. Edo nahiago baduzu alokatzen dizugu.
- ERDIALDEAN: 123 m2. Etxe osoak kanpora ematen du. Berriztatzeko. Zonalde onean kokatua.
- PLATERUEN PLAZA: 3 logela, 2 komun, sukaldea eskegitokiarekin eta egongela. Ganbara eta garajea.
- ZEHARKALEA: Atikoa. Guztiz berriztatua. 2 logela, sukaldea, egongela – jangela eta komuna.
- ANDRA MARI: 110 m2. 3 logela, komuna, egongela eta sukaldea. Leku onean.
- ASKATASUN ETORBIDEA: Eraikuntza berriak. 2, 3 eta logela bakarrekoak. Durango erdialdean.
- BARRENKALE: AZKENEKO DUPLEXA. Eraiki berriak. Berehalako banaketa.
- Taberna salgai. 100 2. Instalazio guztiekin. Prezioa negoziagarria da.

BERRIZ

- Logela, sukalde “amerikarra”, egongela eta komuna. Berria estreinatzeko. 96.000€.

ABADIÑO

- 2 logela, 2 komun, sukalde-jangela, egongela eta eskegitokia. Garajea, trastelekua eta ganbara. Zoragarria.

ATXONDO

- 2 logela, komuna, sukaldea balkoiarekin, egongela eta bainugela. Etxe osoak kanpora ematen du. Berria ematen du.

ZALDIBAR

- 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela balkoiarekin. Guztiz berriztatua. Trastelekua.

TXALETAK-BASERRIAK SALGAI

URRUTXUA

- Baserría, 8 hektareako lursailarekin. Gernika, Durango eta Bizkaiko Balkoiarekin ondo komunikatuta. Prezioa adosteko prest.

DIMA

- Baserría salgai. 4.000 m2-ko lursaila. Balzolako kobetatik gertu.
- Baserría salgai. Hektarea bateko lursaila. Indusi zonaldean.

MALLABIA

- TRABAKUA: Baserría. 140m2 solairuko. 20.000 m2-ko lursaila. Durangotik 10 minutura.

OTXANDIO

- Guztiz berriztuta dagoen baserría. 3 solairu, sukaldea, egongela – jangela, 2 komun, 3 logela, egongela eta atikoa.

ABADIÑO

- MENDIOLA. Bifamiliarra.Eraiki berria. Estreinatze-ko.Informazio pertsonalizatua.
- Bifamiliarra. 4 logela eta 3 komun. Garajea, trastelekua – txokoa. Lorategia barbakoiarekin. Leku onean kokatua.

GARAI

- Adosatua salgai. Estreinatzeko. Leku ezin hobean kokatuta.

LUR SAILAK SALGAI

OROBIOS

- 4.200 m2-ko lursaila. Guztiz laua.

IURRETA

- 5 hektareako lursaila. Abeletxe bat egiteko aukera dago.



Fernando Uribe
AGENCIA INMOBILIARIA

Barrenkalea 15, behea • Tel./Fax: 94 681 64 23
48200 DURANGO • Bizkaia

ETXEBIZITZAK SALGAI

- ABADIÑO: Txalet bifamiliarra lursailarekin salgai.
 - DURANGO-ERRETENTXU: Salgai. Adosatua eraikitzen.
 - BERNAGOITIA: Zornotza. Unifamiliarra lursailarekin.
 - OTXANDIO: Adosatua. Eraikuntza berriak.
- ETXEBIZITZAK SALGAI
- ANDRA MARI: Halla, sukaldea, jangela, egongela, 3/4 logela, 2 komun eta egongelatxo.
 - ANDRA MARI: Halla, egongela, egongelatxo, sukaldea, jangela, 5 logela, 3 komun.
 - ANTISO EZTEGIZ: Halla, egongela, sukaldea, 2 logela eta komuna.
 - ANTISO EZTEGIZ: Halla, sukaldea, egongela-jangela, 3 logela eta 2 komun. Ganbara eta garajea. Guztiz berriztatua. Estreinatzeko.
 - ASTOLA BIDEA: Halla, sukaldea, egongela, 2 logela eta komuna. Balkoia.
 - BERNARDO GABIOLA: Halla, sukaldea, egongela, 2 logela eta komuna. Guztiz berriztatua.
 - BERNARDO GABIOLA: Halla, sukaldea, egongela, 3 logela, komuna eta despentsa.
 - ERROTARITXUENA: Estreinatzeko. Halla, sukalde jantzia, logela bakarra edo 2 logela, egongela, 2 komun eta eskegitokia. Terraza. Garajea aukeran.
 - GALLANDA: Estreinatzeko. Halla, sukaldea, egongela, logela bakarra edo 3 logela, komun bakarra edo 2 komun eta balkoia. Ganbara eta garajea.
 - GALLANDA: Halla, sukaldea, egongela-jangela, 3 logela eta 2 komun. Terraza. Garaje aeta trastelekua.
 - EZKURDI: Halla, egongela-jangela, sukalde jantzia, 3/4 logela eta 2 komun.
 - F.J.de ZUMARRAGA: Halla, 2 egongela, sukaldea, 3 logela eta komuna.
 - F.J.de ZUMARRAGA: Halla, egongela, sukaldea, 3 logela eta komuna. Balkoia.
 - GASTEIZ BIDEA: Halla, egongela, 3 logela, sukaldea eta komuna. Despentsa eta balkoia. Garajea aukeran.
 - INTXAURRONDO: Halla, egongela, sukaldea, logela eta komuna. Trastelekua.
 - IPARRAGIRRE: Duplexa. Halla, sukaldea, egongela-jangela, 4 logela, 2 komun eta terraza. 2 kotxerentza-ko garajea eta trastelekua.
 - JUAN DE ITZIAR: Halla, egongela, sukaldea, 2/3 edo 4 logela eta komuna. 2 despentsa/trasteleku eta sotoa.
 - KALEBARRIA: Halla, egongela, sukaldea, 3 logela eta komuna. Despentsa. (Guztiz berriztuta).
 - KOMENTU KALEA: Halla, egongela-jangela, sukaldea, 2 logela horma-armairuekin eta komuna. Ganbara. (Guztiz barriztuta eta erdi jantzia).
 - KOMENTU KALEA: Halla, sukaldea, egongela-jantokia, 4 logela eta komuna. Ganbara.
 - KURUTZIAGA: Halla, sukaldea, egongela-jangela, 3 logela eta komuna. Despentsa handia. Ganbara.
 - LAUBIDETA: Halla, sukalde-jantokia, egongela, 2 logela eta komuna. Terraza.
 - MARTXOAREN 8ª: Halla, sukaldea, 2 logela, egongela eta 2 komun. Terraza handia.
 - MONTEBIDEO: Halla, egongela-jangela, sukaldea, 5 logela eta 3 komun. Terraza. Ganbara. 150 m2.
 - PLATERUEN PLAZA: Halla, egongela, jangela, sukalde jantzia, 4 logela eta 3 komun. Garajea eta trastelekua.
 - SAN IGNAZIO: Halla, sukaldea, egongela-jangela, 3 logela eta komun bakarra edo 2 komun. Balkoia. Garajea aukeran eta trastelekua.
 - SAN FAUSTO: Halla, sukalde.jangela, 2 logela eta komuna.
 - SASIKOA: Halla, sukaldea, egongela-jangela, 3 logela eta 2 komun. Ganbara eta garajea.
 - TABIRA: Halla, egongela-jangela, logela, komuna eta eskegitokia.
 - TXIBITENA: Halla, egongela-jangela, sukalde jantzia eskegitokiarekin, 3 logela eta 2 komun. Ganbara eta garajea. Erdi jantzia. Ikuspegiekin.
 - UNDA-TORRE: Halla, sukaldea, 3 logela, egongela eta komuna.
 - URKO KALEA: Halla, sukaldea, egongela-jangela, 2 logela eta 2 komun. 2 terraza. Ganbara eta garajea.
 - ABADIÑO-ITURRITXO: Halla, sukaldea, egongela, 2 logela eta 2 komun. Eskegitokia. Trastelekua eta garajea.



Inmobiliaria del Duranguesado
ASKATASUN ETORBIDEA, 10 • 48200 DURANGO
Tel./Faxe: 94 681 66 66
www.inmoduranguesado.com
inmoduranguesado@gmail.com

ETXEBIZITZAK SALGAI

- MARTXOAREN 8KO: AZKENEKO etxebizitza estreinatzeko, beherapen handiagaz obrak likidatzeko. 2 logela. Garaje itxia.
- EZKURDI: Viviendas de Vizcaya. 3 logela. Hainbat orientazio eta gainazal. Azkeneko etxebizitzak salgai. 301.979 + bez. Garajea eta ganbara.
- ASKATASUN ETORBIDEA: Promozio berriak. 1,2,3 eta 4 logelakoak.
- Logela bakarra garajea eta ganbarekin 185.000€ + BEZ
- 2 logela garajea eta ganbarekin 233.000€ + BEZ
- 3 logela garajea eta ganbarekin 350.000€ + BEZ
- ASKATASUN ETORBIDEA: 115 m2. 3 logela, egongela, sukalde jantzia eta 2 komun. Garajea eta ganbara.
- ASKATASUN ETORBIDEA: 74 m2. EZINHOBEA. ETXE OSOAK KANPORA EMATEN DU. 2 logela. Garajea.
- ERROTARITXUENA: Estreinatzeko. 2 logelako atikoa, egongela, sukalde jantzia, 2 komun. 20 m2-ko 2 terraza. Garaje itxia.
- ZUMALAKARREGI-EZKURDI: 130 m2. 4 logela. Garajea. Handia. Orientazio ona.
- EZKURDI: 100 m2. 3 logela, egongela, sukaldea eta 2 komun. Ganbara. Prezio ona.
- EZKURDI: 4 logela, egongela, sukalde jantzia eta 2 komun. Balkoia.
- TABIRA: 90 m2. 3 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Eguzkitsua eta ikuspegi ederrekoa.
- MURUETA TORRE: 120 m2. 4 logela. Garajea eta trastelekua. Balkoia.
